

Fiskalizazio Txostena
Informe de Fiscalización

**Arabako Lurralde Historikoaren
Kontu Orokorraren
fiskalizazio txostena**

**Informe de Fiscalización
de la Cuenta General
del Territorio Histórico
de Álava**

2006



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA.....	7
--------------	---

SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOA

I. IRITZIA	9
------------------	---

I.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	9
A. Arabako Foru Aldundia (AFA).....	9
B. Gizarte Ongizaterako Foru Institutua (GOFI).....	10
C. Gazteriaren Foru Erakundea (GFE).....	10
I.2 Kontuen gaineko iritzia	11
A. Arabako Foru Aldundia (AFA).....	11
B. Gizarte Ongizaterako Foru Institutua (GOFI).....	11
C. Gazteriaren Foru Erakundea (GFE).....	11

SEKTORE PUBLIKO ENPRESARIALA

I. IRITZIA	12
------------------	----

I.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	12
I.2 Kontuen gaineko iritzia	13

II. BARNE KONTROLERAKO SISTEMARI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI

BURUZKO IRIZPENAK	14
-------------------------	----

A ARABAKO FORU ALDUNDIA (AFA)	14
-------------------------------------	----

II.A.1 Aurrekontu eta kontularitzako gaiak.....	14
II.A.2 Diru-sarrerak.....	14
II.A.3 Erosketak eta inbertsioak.....	16
II.A.4 Diru-laguntzak.....	18
II.A.5 Langileen gastuak.....	23

B GIZARTE ONGIZATERAKO FORU INSTITUTUA (GOFI)	23
---	----

C GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA (GFE).....	25
---	----

D FORU ENPRESA PUBLIKOAK	26
--------------------------------	----

III. FINANTZEN ANALISIA	29
-------------------------------	----

III.1 Sektorre publiko administratiboa.....	29
III.2 Sektorre publiko enpresariala.....	39



IV. ALH-AREN FORU SEKTORE PUBLIKOAREN KONTUAK42

IV.1 Foru Aldundiaren Kontuak42

IV.2 Erakundearen Administrazioaren Kontuak47

INTRODUCCIÓN.....55

SECTOR PÚBLICO ADMINISTRATIVO

I. OPINIÓN57

I.1 Opinión sobre el cumplimiento de legalidad57

A. Diputación Foral de Álava (DFA) 57

B. Instituto Foral de Bienestar Social (IFBS) 58

C. Instituto Foral de la Juventud (IFJ) 58

I.2 Opinión sobre las cuentas59

A. Diputación Foral de Álava (DFA) 59

B. Instituto Foral de Bienestar Social (IFBS) 59

C. Instituto Foral de la Juventud (IFJ) 59

SECTOR PÚBLICO EMPRESARIAL

I. OPINIÓN60

I.1 Opinión sobre el cumplimiento de legalidad60

I.2 Opinión sobre las cuentas61

II. CONSIDERACIONES SOBRE EL SISTEMA DE CONTROL

INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....62

A DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA (DFA)62

II.A.1 Aspectos presupuestarios y contables62

II.A.2 Ingresos62

II.A.3 Compras e inversiones64

II.A.4 Subvenciones66

II.A.5 Gastos de personal71

B INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL (IFBS).....72

C INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD (IFJ)74

D EMPRESAS PÚBLICAS FORALES.....75



III. ANÁLISIS FINANCIERO	78
III.1 Sector público administrativo	78
III.2 Sector público empresarial	89
IV. CUENTAS DEL SECTOR PÚBLICO FORAL DEL THA	92
IV.1 Cuentas de la Diputación Foral	92
IV.2 Cuentas de la Administración Institucional	97
ANEXOS	105
A. DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA	105
A.1 Modificaciones presupuestarias	107
A.2 Liquidación del presupuesto de ingresos	109
A.2.1 Impuestos, tasas y otros ingresos	110
A.2.2 Ingresos por transferencias y subvenciones	112
A.2.3 Ingresos patrimoniales	114
A.2.4 Enajenación de inversiones reales	115
A.2.5 Variación de activos financieros	115
A.3 Liquidación del presupuesto de gastos	116
A.3.1 Gastos de personal	117
A.3.2 Gastos de bienes corrientes y servicios	119
A.3.3 Gastos financieros	120
A.3.4 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital	121
A.3.5 Inversiones reales	124
A.3.6 Variación de activos financieros	124
A.4 Gastos plurianuales	126
A.5 Balance de situación	127
A.5.1 Inmovilizado	127
A.5.2 Inmovilizado financiero	128
A.5.3 Deudores presupuestarios	130
A.5.4 Tesorería	133
A.5.5 Fondos propios	134
A.5.6 Estado de la deuda	135
A.5.7 Acreedores presupuestarios	136
A.5.8 Deudores y acreedores extrapresupuestarios	136
A.6 Avals concedidos	138
A.7 Contratación administrativa	138
A.8 Análisis de las subvenciones concedidas	140



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B	INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL.....	143
C	INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD.....	148
D	EMPRESAS PÚBLICAS FORALES.....	150
ALEGAZIOAK.....		161
ALEGACIONES.....		209

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 31

Vitoria-Gasteiz, 31 de octubre de 2008



SARRERA

Fiskalizazio txosten hau Arabako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoak 2006ko ekitaldian buruturiko ekonomia eta finantza jarduerari buruzkoa da, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren (aurrerantzean HKEE) 1/1988 Legearen arabera burutu da, 2008rako HKEEren lanerako programan jasoa dagoela.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ezargarria den arautegia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obra, zerbitzu eta hornigaiaren kontratazioa, diru-laguntzak eta laguntza publikoak ematea eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.
- Kontularitzakoak: Kontu Orokorra ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu den aztertuko dugu.
- Finantza azterketa, bai foru administrazio publikoaren aurrekontu likidazioari dagokionez, bai foru administrazio publikoaren eta foru enpresa publikoen egoera ekonomikoari dagokionez ere.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlanik besarkatzen. "Nolanahi ere, azaleratu diren hutsak "Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak" idazpuruan zehaztu ditugu, horiek hobetzeko gomendioekin batera."

Txostenean foru sektore publikoa honako azpisektore hauetan biltzen da:

SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOA

Foru administrazio publikoaren azpisektorea honako entitate hauek osatzen dute:

- Arabako Foru Aldundia
- Gizarte Ongizaterako Foru Institutua (GOFI). Erakunde autonomo administratibo honek gizarte zerbitzuekin zerikusia duten jarduerak antolatu, kudeatu, bideratu eta gauzatzeko ardura du.
- Gazteriaren Foru Institutua (GFI), gazteriaren erabateko prestakuntza eta sustapenera emandako erakunde autonomo administratiboa da.

SEKTORE PUBLIKO ENPRESARIALA

Foru administrazio publikoaren azpisektorea honako entitate hauek osatzen dute:

- AFAREN sozietate publikoak. Sozietate horien kapitalean Aldundiak duen partaidetza % 50ekoa baino handiagoa da. Hona hemen zein diren:



Sozietate Publikoak	%	
	Partaidetza	Xedea
• Araba Garapen Agentzia, SA (AGA).....	100	Industrializazioa bultzatu eta sustatzea.
• Naturgolf, SA	99,98	Inguru naturalarekin lotutako hainbat jarduera, inguru sozio-ekonomikoaren garapen eta hobekuntzan lagunduko dutenak, aberastasun eta lanaren sortzaile, natur parkeen kudeaketa barne hartuta. Gaur egun, jarduera nagusia Urturi eta Lagrango golf zelaien ustiapenera emana dago.
• Arabako Kalkulu Zentroa, SA.....	100	Ustiapen eta garapen informatikoarekin lotutako zerbitzuak ematea.
• Ondarea Kudeatzeko Sozietate Anonimoa Arabako Kultura Eraikia (Arabarri).....	55,9	Birgaitze integratuko alorren esparruan hainbat jarduera.
• Arabako Lanak, SA.....	100	Azpiegituren obra publikoak proiektatu, eraiki, zaindu eta ustiatzea, bere izenean edo Arabako Foru Aldundiaren kontura.
• Fernando Buesa Arena, SA	100	Fernando Buesa Arena erabilera anitzeko aretoaren kudeaketa ekonomiko integrala eta ikuskizunen antolamendua.
• Araba Uraren Agentzia, SA.....	100	Ur eta lur ureztatuen hornidura eta saneamendu gaiet. aholkularitza tekniko eskaintzea; baita zerbitzu horiek Arabako Lurralde Historikoan ematearekin lotutako jarduera guztiak ere.
• Arabako Bideak, SA	100	Arabako Lurralde Historikoan zehar igarotzean Vitoria-Gasteiz-Eibar A-1 Autobidea eraiki, zaindu, mantendu eta berez edo hirugarren pertsonen bitartez. ustiatzea.
• Laudioko Elkartegia, SA.....	89,2	Industri sustapena.
• Asparrenako Elkartegia, SA	98	Industri sustapena.



SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOA

I. IRITZIA

I.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

A. ARABAKO FORU ALDUNDIA (AFA)

AURREKONTUETAKO DIRU-SARRERAK

1.- 2006ko ekitaldian emandako bi zatikapen espedientetan, zatikatutako zerga zor nagusia 2.137 mila eurokoa dena, aurkeztutako hipoteka bermeak ez dira behar hainbatekoak zatikatutako zor guztiak bermatzeko (6/2005 Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 79. artikulua).

LANGILERIA

2.- AFak ez ditu Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zergaren aitorten fiskaletan barne hartu goi kargudunei 18 mila euroan ordaindutako kargu-uzte pentsioak, ez baitira NUIZi meneratutako ordainsaritzat hartzen; zerga arautegiak, ordea, ordainsari hauei dagokienez ez du salbuespena aurreikusten.

ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

3.- 2006ko urtarrilaren 31n Diputatuen Kontseiluak zazpigarren aldiz jarraian baimendu zuen Derrigorrezko diru-bilketa agentzia zerbitzua emateko administrazio-kontratua, hasiera batean 1990eko otsailaren 1ean aldeztu aurretik publizitate eta lehiarik bideratu gabe gauzatu zena. Adostutako luzapenarekin, kontratuaren iraunaldia 2008ko otsailaren 1a arte luzatuko da; data horretan, kontratuak 18 urte egingo ditu, kontratu mota honetarako zeinahi legezko aurreikuspen gaindituaz. AFak Derrigorrezko diru-bilketa agentziari, 2006ko ekitaldiko kobrantza-sari modura ordaindutako zenbatekoa, 790 mila eurokoa izan da.

4.- Azaroaren 15eko 188/2006 Foru Dekretu bitartez, bete gabe utzi da aholkularitza eta laguntza tekniko emateko hainbat lan egiteko deitutako lehiaketa irekia (A.7 eranskinaren 16. zk.ko espediente), izan ere, aurkeztutako enpresetatik batek ere ez baitzituen Administrazio Klausula Berezien Pleguan (AKBP) eskatutako betekizunak betetzen, zehazki aurreikusitako exekuzio epeari dagokionez, 2006ko abenduaren 31n finkatu zena. Bete gabe utzi ondoren, Aldundiak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuari ekin zion, exekuzio epea aldatu gabe. Esleipena 2006ko abenduaren 1ean gertatu zen 198 mila euroko zenbatekoarekin eta behin epea amaitua zela, AFak exekuzio epea luzatzeko esleipen hartzaileak egindako eskaria onetsi zuen.

5.- Maestu inguruan Ureztaketa hobetzeko Proiektuaren lanen exekuzioa xede duen espedientean (22 zk.ko esp.), aurreko urteetan 4.125 mila euroko zenbatekoarekin esleitutakoan, kontratuaren prezioa sustraitik aldatu zen 2006an, izan ere 2.231 mila euroan



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

(% 54) garestitu baitzen; hori guztia etendura erabaki ondoren eta kontratua exekutatzeko jarraitzeko beharra justifikatu gabe (etenduretako legez finkatutako gehiengo epea gainditu ondoren) eta dena delako aldaketa, beharrian berri edo ustekabekoen ondorio izan gabe.

6.- 2006ko ekitaldian zehar, AFak 642 mila euroko gastuak egin ditu telefonia finkoan, publizitate eta lehia printzipioak bete gabe.

7.- AFak zuzenean agindu dizkio Arabako Artium Fundazioari “Don Pedro Lopez de Ayala, Canciller Mayor de Castilla” (17 zk.ko esp.) izeneko erakusketa proiektuaren exekuzio lanak, 793 mila euroko zenbatekoa egin dutenak; honek 2004/18/CE Zuzentarauean finkatutako kontratazio obligazioak urratzen ditu, izan ere, Fundazioa ez da entitate bat zeinetan Administrazioak bere zerbitzu propioen gainean duen kontrol bera eragin dezakeena; halaber, ez daiteke esan bere jardueraren zati nagusia Administrazio agindu-emaiarentzat egiten duenik eta partaidetza pribatua du.

DIRU-LAGUNTZAK

8.- Publizitate eta lehia egitetik salbuestea justifikatzen duten txostenak ez daude behar bezain arrazoituak diru-laguntzaren emakidan, 2.742 mila euroko zenbatekoa egin dutenetan. Onuradunak bost toki entitate eta irabazi asmorik gabeko bi izan dira, hurrenez hurren 2.306 eta 436 mila euro egiten dituztenak (A.8 eranskinaren A.1 akatsa).

Epaitegi honen ustetan, Arabako Foru Aldundiak, aurreko idatz-zatietan aipatutako lege-hausteak alde batera, zuzentasunez bete du 2006ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege araudia.

B. GIZARTE ONGIZATERAKO FORU INSTITUTUA (GOFI)

1.- GOFIk zuzenean kontratatu du enpresa batekin gasolioaren hornidura, 82 mila euroko zenbatekoarekin, eta telefonia zerbitzua ematea, 174 mila euroko zenbatekoarekin, dagokion kontratazio prozedura izapidetu gabe.

Epaitegi honen ustetan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, aurreko idatz-zatian azaldutako salbuespena alde batera, zuzentasunez bete du 2006ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

C. GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA (GFE)

Epaitegi honen ustetan, Gazteriaren Foru Erakundeak zuzentasunez bete du 2006ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.



I.2 KONTUEN GAINEKO IRITZIA

A. ARABAKO FORU ALDUNDIA (AFA)

Epaitegi honen iritzira, Arabako Lurralde Historikoaren Foru Administrazioaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan 2006ko aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten du, ondarearen eta 2006ko abenduaren 31n finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.

B. GIZARTE ONGIZATERAKO FORU INSTITUTUA (GOFI)

Epaitegi honen iritzira, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2006ko aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen, data horretan amaitutako ekitaldiaren finantza egoeraren eta bere eragiketen emaitzen isla leiala erakusten dute.

C. GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA (GFE)

Epaitegi honen iritzira, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2006ko aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen, data horretan amaitutako ekitaldiaren finantza egoeraren eta bere eragiketen emaitzen isla leiala erakusten dute.



SEKTORE PUBLIKO ENPRESARIALA

I. IRITZIA

I.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONPROMISO KREDITUAK

1. Sozietate publikoen aurrekontuek kapital eragiketei dagozkien konpromiso kredituak barne hartu behar dituzte (53/1992 FAREN 55.4 artikulua). Araba Garapen Agentzia, SAK 2006an zehar iraupena 2006ko abenduaren 31tik areagokoa duten kontratuak esleitu ditu, 5.716 mila euroko zenbatekoarekin; horien aurrekontuek, ordea, ez dute aipatutako konpromiso kredituen egoera barne hartzen (D1 hutsa D.5 eranskinean)

LANGILERIA

2. Langileak kontratatzea: Arabako Kalkulu Zentroa, SA eta Arabako Lanak, SA sozietateek, hurrenez hurren langile finko bat eta aldi baterako langile bat hautatzeko, berriaz gaitutako enpresekin hautaketa prozesuak kontratatu dituzte, deialdiei publizitatea eman eta sozietateei prozesuaren gaineko azken txostena ematen dietenak, izangaien azken zerrenda proposatuz. Azken txosten horrekin batera aurre-hautatutako izangaiak barne hartzea edo ez justifikatu edo euskarrituko duen dokumentaziorik aurkezten ez denez, ezin egiaztatu izan dugu horien kontratazioan berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde direnik.

3. Berdintasunaren printzipioa: Naturgolf, SAK ekitaldian zehar gauzatu dituen langileak hautatzeko bi prozesuetan (langile finkoak) eta Arabako Lanak, SAK gauzatutako prozesuetako batean (aldi baterako langileriarentzako), ez da berdintasun printzipioa gorde, izan ere, izangaien bizilekua balioztatu baita.

ONDASUN EROSKETA ETA ZERBITZUAK (Ikus D.5 eranskina)

4. Arabako Lanak, SA sozietateak Vitoria-Gasteizko Abasto Plazaren goiko solairurako altzarien hornidura kontratatu du 68 mila euroko zenbatekoarekin eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez, APKLren 182 c) artikuluan aurreikusten dena; ordea, ez dago behar bezain justifikatua eta horrek publizitate eta lehia printzipioak urratzen ditu (A1 akatsa).

5. Arabako Kalkulu Zentroa, SA: 2006ko ekitaldian zehar eta 2004ko urtealdian egindako homologazio espedientea ezarri, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez lau laguntza tekniko kontratatu ziren informatikako hainbat zerbitzu emateko, guztira 724 mila euro egin zutenak. Ekitaldian kontratatutako zenbatekoek APKLren 2.2 artikuluan aurreikusitako mugak gainditzen dituztenez gero, beharrezkoa izango zatekeen sailkapena eta lehiaketa DOUEn argitara emateko eskatzea.



Epaitegi honen iritzira, 2. paragrafoan adierazitako mugaketa eta aipatutako gainerako ez-betetzeak salbuetsita, foru sozietate publikoek zuzentasunez bete dute 2006ko ekitaldian euren ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia.

I.2 KONTUEN GAINEKO IRITZIA

1. Asparrenako Udalak 2006ko abenduan Araba Garapen Agentzia, SArI 1.442 mila euroko zenbatekoa erreklamatu dio hirigintzako aprobetxamendu kontzeptuan, 2002ko urteko Asparrena-San Millan Poligonoaren Plan Partzialaren exekuzioaren ondorioz; kopuru horri erantzunik eman ez zaionez gero, sozietateari betearazte bidea erabilia erreklamatu zaio. Araba Garapen Agentzia, SAK uste du likidazio hori baliogabea dela eta Administrazioarekiko Auzi Errekurtoa eta Deuseztasun Akzioa aurkeztu duela Udalaren ebazpenaren aurka, betearazte bidean zorraren exekuzioa eteteko eskatuz.

Sozietatea, aurkeztutako errekurtoaren ebazpena alde batera, Asparrenako Udalarekin hirigintzako aprobetxamendutik kendu beharko duen zenbatekoa negoziatzen ari da, aipatutako poligonoan euskarritutako gastuen kontzeptuan, 1995ean izenpetu eta 2004an aldatutako hitzarmen bat betez. Bi aldeek adosten duten erabakia, dagokion heinean, San Millango Udalera zabalduko da.

Txosten hau idatzi dugun datan, ez dakigu zein den erreklamazio hauen azkena eta horiek urteko kontuetan izan dezaketen eragina.

2. Kontu Orokorrak ez ditu Laudioko Elkartegia, SA eta Asparrenako Elkartegia, SA, Sozietate Publikoak barne hartzen, Arabako Foru Aldundiak zeharka partaidetutako sozietateak direnak, Araba Garapen Agentzia, SAN duen partaidetzaren bitartez, zeinaren akziodun bakar den. Sozietate horietan Aldundiak duen partaidetza, hurrenez hurren, % 89,2 eta % 98koa da.

Epaitegi honen iritzia da lehenengo idatz zatian azaldutako zalantza egoerak izan lezakeen eragina salbuetsita eta bigarren idatz zatietan adierazitako salbuespena alde batera, foru sozietate publikoen urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2006ko ekitaldiko jarduera ekonomikoa erakusten dutela; baita ondarearen irudi zehatza eta 2006ko abenduaren 31n finantza egoera eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzak ere.



II. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA PROZEDUREN GAINEKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

A. ARABAKO FORU ALDUNDIA (AFA)

II.A.1 AURREKONTU ETA KONTULARITZAKO GAIAK.

1.1 Aurrekontu aldaketak: AFAk okerreko moduan erabiltzen du kredituak gaitzeko moldea gastuak diruzaintza geldikinaren kontura finantzatzeko. Era honetara, 15.281 mila euroko gastuak gaitu dira; horietatik 13.976 mila euro aurreko ekitaldian erabilitako fasera iritsi ez ziren kredituen saldoei dagozkie, edota 2005eko azken kredituetan jaso ere egin gabe zeudenei; gainerako 1.305 mila euroak, 2004ko aurrekontutik 2005eko aurrekontura txertatutako kontu-sail batetik zetozen, 2005ean erabilitako fasera iritsi ez zena.

Komenigarria litzateke AFAk aurrekontuaren gaineko aldaketak aldaketaren izaeraren arabera erabiltzea.

1.2 Kontularitzako erregistroa: Aldundiak ez du 2006ko ekitaldiko gastuen aurrekontu likidazioan 1.248 mila euroko zenbatekoa barne hartu, Trebiñoko Konderrian zehar igarotzen den N-1 errepideko bide-zatiko obren exekuzioari dagokionez Sustapen Ministerioak 2006 amaieran jaulki eta onetsitako prezioak berrikusteagatiko egiaztagiri batetik finantzatu beharreko atalari dagozkionak. Eragiketa hau zuzen erregistratu ahal izateko, erregistratu egin beharko luke aitortutako obligazioa eta diruzaintza geldikina 1.248 mila euroan murriztu. Alabaina, 2006ko ekitaldian egiaztagiri hau zuzen erregistratu da ondare kontabilitatean.

II.A.2 DIRU-SARRERAK

2.1 Zorrak betearazte bidean: AFAk ez ditu premia-bide prozedura bitartez jasotako zorraren berandutza interesak likidatzen (Arabako Zergazko Foru Arau Orokorraren 26 art.). Bada, aztertutako espedienteetarik, betearazte bidean 2.392 mila euroko kobratzeko saldoak dituzten lau zordunek 2006ko ekitaldian zehar 65 mila euroko ordainketak egin dituzte, Derrigorrezko Diru-bilketa Agentziaren eta zordunaren artean hitzartutako hainbat baldintzaren arabera, berandutza interesik batere kitatu ez dela.

Betearazte bidean dauden zorren kobrantzak Derrigorrezko Diru-bilketa Agentziak berak dituen kontuetan sartzen dira eta hil bakoitzeko azken egunetan aldizkako intsuldaketak egiten dira AFaren diru-bilketarako kontu murriztuetara. 2006ko abenduaren 31n Derrigorrezko Diru-bilketa Agentziaren kontuetan sartutako 964 mila euroko kobrantzak daude, AFaren aurrekontuz kanpoko kontuetan kobratzeko zain modura erregistratuak daudenak.



2.2 Sarrereren kudeaketa: Zerga dokumentazio guztiaren informatizazioa Ogasun Zuzendaritzaren Diru-bilketa Fiskaleko Zerbitzuak egiten du eta hori guztia Tributuen Zerbitzuek egiaztatzen dute. Agiri horiek erregistratzen Diru-bilketa Fiskalaren Zerbitzuak egiten dituen laburpenak sortzen dira, kontabilizazioaren euskarri direnak. Kontabilitatean, berriz, funtsen mugimendua soilik egiaztatzen da eta kontularitzako agirietan artekaritza formala baizik ez da egiten.

Informazio fiskalaren atal bat eskuz kontrolatzen da. Horietan bereziki gailentzen dira egoera berezietan emandako geroratze eta zatikapenak, geroratze kontua, errekurritutako zerga-zorra eta ordaindu gabeko zorra Derrigorrezko diru-bilketa agentziara igortzea.

Kontularitzako erregistroek oinarrizko helburu den kontrol-egitekoa gauzatu behar dute, kontularitzako sistemak informazio guztia jasotzen duelako ziurtasuna izateko moduan; honenbestez, lehentasun erabatekoa eman behar zaio prozesuen automatizazioaren bitartez kudeaketari buruzko informazioaren kalitatea hobetzeari eta kontularitzan diru-bilketa zerbitzuaren informazioa barne hartzeari.

Berebat, gomendagarria litzateke Finantza eta Aurrekontuen Zuzendaritzak jatorri fiskaleko eragiketen egiaztaketak egitea.

2.3 Zatikapenak:

- 2006ko ekitaldian zatikapena eman zitzaion bi zordunei, 2.966 mila euroko printzipalaren gainean, zatikapena arautegi erregulatzailean finkatutako gehienezko epea gainditzen duten aldiatarako onetsi zaie (22 eta 25 hilabete).
- Zatikapenezko bi espedientetan, zor nagusia 1.493 mila eurokoa dena, dagozkion erabakietan finkatutako hipoteka bermeak atzerapenez eratu ziren (11 eta 12 hilabete) emakida erabakietan ezarritako epeekiko. Halaber, 2006an emandako beste zatikapen espediente batean, 923 mila euroko printzipala duenean, ez da emakida erabakian aurreikusitako hipoteka eratu, nahiz zorra osorik 2006an kitatzen den.
- 240 mila euroko printzipala zuen zordun bati bermerik gabe zerga zorren zatikapena eman zaio, ALHren Diru-bilketa Erregelamenduaren 62. artikuluan jasotako dokumentazioa aurkeztu gabe (abala eratzeko bi kreditu erakunderen ezetza, zeinetan subjektu pasiboa gutxienez 6 hilabeteko antzintasunarekin ohiko bezero baiten, eta baldintzarik gabeko baimena AFari bere banku kontu guztien saldu eta kontu-mugimendu guztiak ezagutu ahal izateko).

2.4 Besterentzea: 2006ko urtarrilaren 11ko Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Foru Diputatuaren Agindu bitartez, AFaren jabetzako lursail bat saltzea onetsi zen, AFAk berak 1996an (enpresa batek lursailak eskatu zituen unea) egindako baloraketatik eskuratutako prezioan, KPIrekin 2005eko apirilera arte gaurkotua, 32 mila euroko azken prezioa ezarri.



Komenigarria litzateke AFAk besterendu beharreko ondasunen baloraketa salmenta datatik ahalik eta gertuen egitea, ondasun horiek merkatuan duten balioa gordetzearren.

II.A.3 EROSKETAK ETA INBERTSIOAK

Kontratu txikiak eta beste

3.1 Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa eta inbertsioen administrazio kontratu txikietan, prozedura negoziatu bitartez izapidetu behar ziratekeen hainbat erosketa azaleratu zaizkigu, ezaugarri bereko edo antzeko beste hainbat gauzatu baitira urtean zehar, edo hornitzaile berari data beretan antzeko eskaria egin baitziztaion. Hona hemen erosketa horiei dagozkien kontzeptu eta zenbatekoak:

KONTZEPTUA	Mila euro		
	Enpresa kopurua	Faktura kop.	Zenbatekoa
Inprentako materialaren horniketak	6	256	252
Ibilgailuen konponketa eta mantentze lanak	4	92	177
Eraikin eta errepideen konponketa eta mantentze lanak..	3	22	134
Ordezko piezen hornidura	1	9	25
Prokuradore gastuak	2	54	42
Hainbat materialen hornidura	1	4	20
Hainbat zerbitzu ematea.....	2	51	58
Gesaltza Añanako Gidaplana (inbertsioa)	1	3	19
Azokak egiteko hainbat instalakuntza (inbertsioa)	1	1	13
Iruña-Veleian indusketa lanak (inbertsioa).....	1	4	27
Martiodan lanak (inbertsioa)	1	3	41
Azoka eta lehiaketetarako egiturak (inbertsioa)	1	1	13
Apalak eta altzariak hornitzea (inbertsioa).....	2	12	36
Ikasketa eta proiektuak (inbertsioa).....	1	5	27

2006ko esleipenak eta aurreko urteetako kontratuak (Ikus A.7.1 eta A.7.2 eranskina)

3.2 Lehiaketa bitartez 26.160 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako sei obra kontratutan, AFAk esleipen irizpide modura kontratisten kaudimen edo eskarmentuari buruzko alderdiak erabili ditu (giza talde edo materialen kualifikazioa) (2, 4, 5, 6, 7 eta 9 zk.ko esp.) (A1 akatsa).

Kaudimen teknikoak lizitazio atalean egiaztatu behar da eta ez daiteke esleipenaren atalean baloratu, une horretan eskaintza soilik baloratu behar baita.



3.3 Guztira 4.941 mila euroan esleitutako bi espedientetan (11 eta 16 zk.) AKPPek ez dute behar hainbat zehazten esleipen irizpideak ezartzeko modua, gerora esleipenerako txosten teknikoetan zehazten direlarik irizpide horiek eta balioztatzeko modua (B1 akatsa).

3.4 Guztira 19.660 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako sei espedientetan (4, 5, 6, 7, 12 eta 16 zk.ko esp.), esleipen proposamenaren euskarri diren txosten teknikoek ez dute lehiatzaile bakoitzari emandako puntuaketen baloraketa justifikatzen (B2 akatsa).

APKLTBren 88.1 artikuluari jarraiki, kontratazio atalak kasu guztietan arrazoitu egin behar du ebazpena, pleguan jasotako lehiaketaren esleipen irizpideei erreferentzia eginez.

3.5 Hainbat atzeraldi gertatu dira aztertu ditugun kontratazio espedienteak izapidetzean. Zehazki:

- Guztira 3.162 mila euroan esleitutako bi espedientetan (8. eta 13. esp.), esleipena atzerapenez egin da (17 egun eta 5 hilabete, hurrenez hurren) (B3 akatsa).
- 2006an esleitutako bost espedientetan eta aurreko urteetan esleitutako lautan (4, 5, 7, 8, 15, 22, 26, 27 eta 28 zk.), 66.072 mila euro egiten dutenetan, lanerako programak atzerapenez onesten dira (13 egun eta 6 hilabete bitartean)(C21 akatsa).
- 16.059 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako lau espedientetan (4, 8, 27 eta 28 zk.ko esp.), Segurtasun eta Osasun Plana lanei ekin ondoren onetsi da (C3 akatsa).
- Aurreko urteetan esleitutako hiru obra espedientetan (24, 30 eta 33. esp.), 2.755 mila eurokoetan, kontratuan finkatutako epe aldaketen onespina, hasiera batean kontratua amaitzea aurreikusitako data baino beranduago gertatu da (C4 akatsa).
- 8.089 mila euroko hiru espedientetan (22, 30 eta 33 zk.ko esp.) atzerapenez ordaintzen ditu AFAn egiaztagiriak (C5 akatsa).
- Hiru espedientetan (23, 24 eta 33 zk.ko esp.), guztira 5.201 mila euroan esleitutakoetan, harrera akta atzerapenez egin zen aurreikusitako epearekiko (C8 akatsa).

3.6 2006ko ekitaldian 4.743 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako espediente batean (11 zk.ko esp.) ez da lanerako programa aurkeztu. Guztira 50.168 mila euroan esleitutako zazpi espedientetan (2, 4, 5, 15, 26, 27 eta 28 zk.ko esp.) horretarako eskumenik ez zuen atalak onetsi zituen (Foru Diputatuak) (C2 akatsa).

3.7 1.162 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako espediente batean (8 zk.), egiaztagiriak ez dira hileroko jaulki. Bestalde, aurreko urteetan 1.407 mila euroan esleitutako obra espediente batean (33 zk.), lanerako programa urratu da, 11 hilabetetan ez baita obrarik egiteratu. Gainera, hilabete horietatik 7tan ez dira egiaztagiriak jaulki (C6 akatsa).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

3.8 41.904 mila euroan esleitutako sei espedientetan (8, 11, 12, 13, 26 eta 33 zk.ko esp.) obraren finantzaketa erritmoa ez zaio exekuzio erritmoari egokitu (APKLTBren 14.3 artikulua) (C7 akatsa).

3.9 Laguntza teknikoa emateko espedienteen -445 mila eurokoa bera-, ez da harrera-aktarik gauzatu (21 zk. esp.). Bestalde, beste obra espediente batean (18 zk.ko esp.) 1.747 mila eurokoan, harrera akta obrak guztiz amaiturik egon gabe izenpetu zen (C9 akatsa).

3.10 1.431 mila euroan esleitutako espediente batean (15 zk.ko esp.), zuinketaren egiaztapen-akta gauzatu ondoren lanei ekin zitzaie, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren onespenerik izan gabe (C10 akatsa).

3.11 Aurreko urteetan esleitutako hiru obra espedientetan (30 eta 33. esp.), 1.733 mila euroko zenbatekoarekin, exekuzio epeak luzatu ziren eta horren ondorioz, lanen amaiera data ere esleipenean aurreikusitako amaiera datarekiko izugarri atzeratu zen, epea izan zelarik AFAk kontratuak esleitzeko erabilitako irizpideetariko bat (D akatsa).

3.12 Proiektuak Gainbegiratzeko Bulegoari legeak agintzen dizkion egitekoak kontratu guztietan Plangintza, Proiektu eta Obren Zerbitzuburuak egiten ditu, AFAk ez duelako Proiektuak Gainbegiratzeko bulegorik.

II.A.4 DIRU-LAGUNTZAK (IKUS A.8 ERANSKINA)

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, lehenengo xedapen iragankorrean urtebeteko epea ezartzen zuen Lege hau indarrean sartzen zen unetik aurrera diru-laguntzak bertan ezarritako araubide juridikora egokitzeko, eta epe hori 2005eko otsailean amaitzen zen. Ordea, AFAk egokitzapen hori egin ez duenez gero, zuzenean ezarri beharreko dira 38/2003 Legeak Estatuko oinarritzko legeria izaera dutela agintzen duen alderdi horiek.

4.1 Diru-laguntza izendunak:

- 2006ko ekitaldiaren Aurrekontu Orokorretan diru-laguntza izendun modura barne hartzen dira, "irabazi asmorik gabeko erakundeei eman beharreko diru-laguntzak, beste sail batzuetan aurreikusi gabekoak" izeneko diru-laguntzak, Diputatu Nagusiaren dekretu bitartez 40 entitateri eman zaizkienak guztiz xede ezberdinetarako 125 mila euroko zenbatekoarekin; horiek diru-laguntza izendun eta banakatu modura hartzea ez dator bat ALHren diru-laguntza eta transferentziei buruzko 3/1997 FAren 7. artikuluekin, izaera orokorra baitute eta onuraduna ez baitago duen xedearen arabera aurretik zehaztua (E akatsa).



- AFAREN eta Gasteizko Aireportua Sustatzeko Bidea, SA elkartearen artean 1.000 mila euroan (600 mila euroko konpromiso kredituak barne hartzen ditu) izenpetutako hitzarmenaren xedea ez dago behar bezain zehaztua (interneten marketing kanpaina bat egin zen, bai Vitoria-Gasteiz eta Arabari buruz, bai Vitoria-Gasteizko Aireportuari buruz) eta ez dira zehaztu egin asmo diren ekintzak eta ekintza bakoitzeko aurrekonturik ere ez dagoela; honenbestez, ezin egiazta dezakegu aurreikusitako ekintzak bete direla (B3 akatsa). 2006an emandako diru-laguntza azkenean 261 mila eurokoa izan da. Honez gainera, ez da hitzarmenean aurreikusitako jarraipen batzordea eratu (D akatsa).
- Gasteizko Elizbarrutiaren eta AFAREN artean izenpetutako hitzarmenean, Gasteizko Elizbarrutiaren jabetzako diren eta ALHREN Kultur Ondareari dagozkion ondasun higigarriak zaindu, birgaitu eta/edo zaharberritzeko lanak egitekoan, 1.000 mila eurokoa, AFAK izaera orokorrarekin obraren kontrata bakoitzeko aurrekontuaren % 50a emango duela zehazten da, partaidetza ehuneko handiagoa zehaztu daitekeelarik, horien apartekotasun eta garrantziagatik Lurralde Historikoaren intereseko gerta dadinean. Batzorde Mistoak onetsitako hamasei jardueretarik hamahirutan, hitzarmenean 948 mila euroko zenbatekoarekin aurreikusitakoa, ehuneko horrek % 50a gainditzen du, jarduera horiek ALHREN intereserako duten apartekotasun eta garrantzia justifikatu ez delarik. Honez gain, ez dira obrak hasi eta hartzeko aktak, Hitzarmenaren 7. klausulak agintzen duen moduan (E akatsa).
- AFAK hainbat jarduera edo inbertsio egiteko izenpetutako bi hitzarmenetan, 240 eta 472 mila euro egin dituztenetan (124 mila euroko konpromiso kredituak barne hartzen dituzte), ez da egiaztatzen dagozkion hitzarmenetan aurreikusitako jarraipen batzordeak eratu direnik (D akatsa).
- AFAREN eta Autobide eusko-aragoiarraren artean Ziorruga-Altube bidezatian ibilgailu astunen bide-ordaina finantzatzeko izenpetutako lankidetzaren hitzarmena luzatzeko espedientean, 234 mila euroko zenbatekoduna, ez dago Gobernu Ordezkaritzak Bide-ordaindun Autobide Nazionalen Sozietate Emakidadunetan jaulki beharreko luzapenaren baimena (E akatsa).
- Santa Maria Katedrala Fundazioari 1.000 mila euroko diru-laguntzak eman zaizkio sendotze, zaharberritze eta birgaitze lanak finantzatzeko; ordea, diru-laguntza emateko urteko erabaketan ez da adierazten onuradunak bere gain hartzen dituen gauzako eta formazko obligazioen luze-zabala, diru-laguntza hori kobratzeko eskubidearen aitortpena eskuratu ahal izateko (E akatsa).

4.2 Zuzeneko diru-laguntzak:

- Behin eta berriz duela urte batzuek geroztik modu zuzenean eta publizitate eta lehia egitetik salbuetsiaz enpresa bati eta irabazi asmorik gabeko erakunde bati 159 mila euroko diru-laguntzak ematen zaizkie. Izaera errepikagarria aintzat hartuta, AFAK diru laguntza izendun modura hartzea aztertu behar luke.
- Arabako Errioxako ardoaren ibilbidea indartzea xede duen 376 mila euroko diru-laguntzan, aurrez publizitate eta lehia egitetik salbuetsiaz emandakoan, hitzarmenean



aurreikusitako ekintzak orokorrak dira eta ez da ekintza bakoitzeko aurrekonturik zehazten; honenbestez, ezin egiazta dezakegu aurreikusitako ekintzak bete direla (B3 akatsa).

- Guztira 2.648 mila euroko zenbatekoarekin emandako bost diru-laguntzatan (300 mila euroko konpromiso kredituak barne hartzen ditu), hitzarmena gauzatu da diru-laguntza jaso duen erakunde bakoitzarekin; ordea, ez dago erasota hitzarmen horien klausuletan aurreikusten den Jarraipen-batzordea eratu denik (D akatsa).

4.3 Arautegi erregulatzailea duten diru-laguntzak:

- Guztira 4.097 mila euroko zenbatekoarekin emandako hamabi diru-laguntza lerro arautzen dituzten zortzi oinarri-arau erregulatzailetan, eskabideak balioztatzeko aurreikusitako irizpideetako batzuk orokorrak dira (B1 akatsa). Diru-laguntza hauetatik bitan, 799 mila eurokoetan, ez dira barne irizpideak ezartzen, baina txosten teknikoek arrazoitu egiten dute ezarritako irizpide bakoitzaren balorazioa; gainerako zortzietan, ordea, 2.707 mila eurokoetan, txosten horiek ez daude behar bezala arrazoituak (B2 akatsa). Azken honek ez du garrantzirik 1.957 mila euroko zenbatekoarekin emandako zazpi diru-laguntza lerrotan, izan ere, ez baitzaio inongo eskabideri uko egin aurrekontuko mugaketak direla eta.
- Halaber, udal eta administrazio batzordeei nekazaritza-abeltzaintza izaerako azokak antolatu eta egitea xede duten diru-laguntzen emakidan, 70 mila euroko zenbatekoa egin dutenetan, ez dira eskatzaileek aurkeztutako gastu aurrekontuen gainean ehuneko homogeneousak aplikatzen, diruz lagundutako azokak duen izaeraren arabera (probintzia, eskualde edo udalerrri mailakoa); aldiz, aurreko urteetako kopuru berberak ematen dira eta irizpide hau ez dago laguntza hauen dekretu arautzailean aurreikusia. Diru-laguntza hauei oztopo jarri zien Artekaritzak eta 2006ko irailaren 5eko Diputatuen Kontseilu bitartez baliokidetu ziren. Gainera, aztertutako espedienteetarik bitan, 38 mila euroko zenbatekoa egin dutenak, dekretu arautzailean finkatutako gehienekoak gainditzen dituzten zenbatekodun diru-laguntzak eman dira, espedienteetan egoera hori behar bezala justifikatu ez dela (B4 akatsa).

4.4 Diru-laguntzen justifikazioa: 2006ko ekitaldian emandako ondoko diru laguntzen egiaztapenean hainbat akats azaleratu dira:

- 2006an 5.726 mila euroko gastua eragin duten hogeita hiru diru-laguntzetan, gauzatutako gastuen justifikagiri modura jardueren oroitidazkiak edo konpultsatu gabeko ordainagirien fotokopiak edo faktura zerrendak, egiaz egindako gastuen agiri bidezko euskarririk barne hartu gabe, edo auditatu gabeko finantza egoerak aurkeztu dira; dokumentazio hori, ordea, ez zaio indarreko araudiari egokitzen (C1 akatsa).
- Lau diru-laguntzatan, emandako zenbatekoak 936 mila euro egiten dituenetan, justifikazioa hitzarmenean finkatutako epearekiko atzerapenez egiten da (1 eta 5 hilabete bitartean). Beste bi diru-laguntzatan, 957 mila eurokoak, emakida erabakietan aurreikusitako epea amaitua zegoela onesten da exekuzio eta justifikazio epea luzatzea



eta 1.500 mila euroan emandako beste bi diru-laguntza zuzenetan, ez da dokumentazio justifikagarria aurkeztu obrak 2007ko abenduaren 31n amaitu gabe zeudelako, horiek justifikatzeko data 2006ko abenduaren 31n aurreikusia zegoela (C2 akatsa).

- Diru-laguntzen arautegi berriak exijentzia maila altuagoak dauzka diru-laguntzen onuradunek aurkeztu beharreko dokumentazioarekin alderatuta. Honela, bada, 30.000 eurotik gorako obra eta 12.000 eurotik gorako hornikuntza eta zerbitzuetarako egiten den kontratistaren aukeraketa justifikatzeko exijitzen da. Justifikazioetan lehen aipatutako zenbatekoak baino gehiagoko erosketak antzeman dira, baina ez da kontratistaren aukeraketa justifikatzeko eskatu (C3 akatsa). Berebat, diru-laguntza izendunetako batean, 261 mila euroko zenbatekoarekin emandakoan, Diru-laguntzen gaineko legearen 29. artikulua azpikontratatorako ezarritako muga gainditu da (C4 akatsa).

4.5 Garraio defizitari diru laguntzak: 2000ko urteaz geroztik garraio publikoaren kontzesionario diren hainbat enpresari bidaiaren garraio-lerro erregularren ustiaketa defizitari aurre egiteko diru laguntzak ematen zaizkie; ordea, 2007ko ekitaldiaren amaiera arte ez da izan hori arautuko duen hitzarmenik, izan ere, maiatzaren 15ean onetsi baitzen Diputatuen Kontseiluaren erabaki bitartez AFaren eta ALHn garraio erregularren kontzesionario diren enpresen artean izenpetu beharreko kontratu-programaren testua. 2005eko ekitaldian onetsi zen lehenengo aldiz 2005eko abenduaren 13ko foru agindu bitartez bidaiarien garraio erregularren kontzesionario diren enpresen kostuen egitura eta horiek kalkulatzeko metodologia eta , kasua denean, hauek zerbitzu ematean sortzen den defizit ekonomikoa, AFAk diruz lagundu beharko dituen. Honela, bada, metodologia hori neurri batean 2006ko martxoaren 29ko foru agindu bitartez aldatu zen, zeharkako kostuak murriztuz (komertzializazio gastuak eta industri mozkina). Honenbestez, 2006an zehar emandako diru-laguntza 3.716 mila eurokoa izan da. 2006ko ekitaldian, AFAk fiskaltzari lehenagoko diru-laguntzekin lotutako jarduerak jakinarazi zizkion eta gaur egun, kontu hori Vitoria-Gasteizko Epaitegi batean instrukzio fasean dago.

2006ko ekitaldian emandako diru-laguntzak aztertu dira, 1.876 mila euroko zenbatekoa egin duten bost lerrori dagozkienak; hona hemen azaleratu diren akatsak (E akatsa):

- Departamenduko Diputatuak ez ditu banakako ebazpenak ebatzi, dagokion diru-laguntza eman eta ordaintzeari dagokionez, 77/2000 FDren 7.4 atalak agintzen duen moduan; ordea, Garraio Zerbitzuburuak egindako txostena jaso da, berak eta Obra Publiko eta Garraio saileko zuzendariak izenpetua.
- 318 mila euroko gastuak, bidaiari ugariko lerro nagusietan zerbitzu ematen duten garraiolari laguntzaileei dagozkienak eta kostuen egituraren foru aginduan noizbehinkako modura ageri direnak, AFAk onetsi ez dituenak. Zerbitzu hori 2007an onetsitako kontratu-programaren arauketan barne hartu da.
- Aztertutako lerroetatik batean ere ez dago erasota onuraduna zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan eguneratua dagoenik (2008ko maiatzean onuradun horiek gaurkotuta daude euren zerga obligazioetan).



- Aztertutako lerroetatik hirutan, 572 mila euroko diru-laguntza jaso dutenetan, ez dago erasota enpresa emakidadunak laguntza hauek arautzen dituen FDren 6. atalean zehazten den dokumentazio justifikagarria igorri duenik, 1. eta/edo 2. hiru hilekoei dagokienez eta diru-laguntza kalkulatzeko oinarri dena. Beste lerro batean, 562 mila euroan emandako diru-laguntza batean, igorritako dokumentazioa ez zaio 6. atal horretan zehaztutakoari egokitzen.
- Inongo kasutan ez dute dokumentazio justifikagarri egokia bidaltzen bildutako sarrerak egiaztatzeko.

4.6 Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren, Inbertsioen Plan Bereziaren eta Lurrazpiko Azpiegituren Plan Bereziaren diru laguntzak (14/1997 FA eta 49/2003 FD). Honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

- 2006rako aurrekontu exekuzioari buruzko martxoaren 8ko 2/2006 FAren 15. artikulua Obra eta Zerbitzuen Foru Plana programatik txertatutako kredituetan gertatzen diren bajak bideratzeko esku ematen du. Berebat, 14/1997 FAk berak Plan horren likidazioa aurreikusten du, hau da, AFaren baliabide erabilgarriari buruzko egiazko datuak ezagutu ondoren, behin-betiko zuzkiduraren kalkulua; honela, bada, likidazio hori positiboa baldin bada, hurrengo ekitaldiko aurrekontuari txertatzen zaio. Aurreko horren guztiaren ondorioz, 2006ko hasierako aurrekontuetan barne hartua zegoen Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren hasierako zuzkiduraz gain, 12.590 mila euroan zifratua zegoena, ekitaldian zehar 22.918 mila euro txertatzea ekarri du, zeinetatik 21.427 mila euro Planaren beraren bajetatik eratorritako kreditu gaituei dagozkien; 431 mila euro 2005eko likidazioaren emaitzari eta 1.060 mila euro, erabili gabeko aurrekontu kredituari. Kopuru hauek 2006ko exekuzioarekin alderatzen baditugu, erabilitako kreditu modura erregistratutako 35.455 mila euro eta aitortutako obligazio modura 3.466 mila euro egiten dituen, ikusiko dugu diru-laguntzak gastuaren erabilera fasean erregistratzen direla obra proiektuak gutxi garatuak daudenean; honek eragiten du exekuzioa oso txikia izatea eta gero eta ugariagoak izatea hurrengo ekitaldira egiten diren txertaketak.
- 2006ko ekitaldian hautatutako bederatzi espedienteen azterketatik, 4.619 mila eurokoak eta lehenago urteetan 2.302 mila euroko zenbatekoarekin emandako lau diru-laguntzari egindako jarraipenetik, zera azpimarratu behar dugu:
 - 2.275 mila euro egin dituzten hiru espedientetan, proiektuarekin batera aurkeztu behar den administrazioko dokumentazioa atzerapenez aurkeztu da (2tik 8 hilabetera). Honez gain, espediente hauetatik bitan, 2.110 mila eurokoetan, exekuzio proiektua emakida dekretuan finkatutako epea iraungia dela aurkeztu da (3tik 8 hilabetetara).
 - 233 mila euroko hiru espedientetan, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren konturako diru-laguntzak obrak esleitu ondoren eman dira, nahiz eskaera data obrak egiten hasi aurrekoa den.



II.A.5 LANGILE GASTUAK

5.1 Kontratazioa: Lan poltsak kudeatzeko sistemak ez du uzten gerora egiaztatzen AFAk egindako kontratazioetan poltsa horietan finkatutako hurrenkerara gorde dela.

Komenigarria litzateke gerora lan poltsen kudeaketa egiaztatzea bideratuko duen sistema finkatzea.

B GIZARTE ONGIZATERAKO FORU INSTITUTUA (GOFI)

II.B.1 KONTRATAZIOA (IKUS B.5 ERANSKINA)

1.1 Ondasun eta zerbitzuen erosketaren urteko gastuak, kontzeptu homogeneous hartuta, kontratu txikietarako ezarrita dauden mugak gaingitzen baditu eta urteroko gastu hori aldakorra dela aurreikusten bada, gure ustez, zer behar den, lizitazioak edo eskaintzak eskatu beharko lirateke, aleko-prezioka, bai sailka bai zerbitzu nagusika. Gastu hauen kontzeptu eta zenbatekoak honako hauek dira:

KONTZEPTUA	Enpresa kopurua	Mila euro	
		Faktura kop.	Zenbatekoa
PVCren horniketa (Indesa Tailerrak).....	2	76	184
Termo-formatuak (Indesa Tailerrak).....	1	51	135
Moldeak (Indesa Tailerrak).....	1	15	47
Eserlekuak indartzea (Indesa Tailerrak).....	1	12	52
Elikagaien hornidura.....	3	307	115
Etzetresna elektriko txikia konpontzea.....	1	119	35
Sukalde eta jangelako tresneria horniketa.....	2	180	53
Zeramika eta eskulan tailerraren zerbitzua.....	1	83	67
Errehabilitazio zerbitzu medikua.....	1	7	26
Animazio zerbitzuak.....	1	35	28
Kopia eta argitalpen zerbitzuak.....	1	84	24
Laneko jantzien hornidura.....	1	108	20
Podologia zerbitzua.....	1	79	17
Teleasistentzia ekipoen hornidura.....	1	1	20
Altzarien hornidura.....	1	35	30

1.2 Administrazioiko kontratuetan dagokion luzapena gauzatu gabe zerbitzuak ematen eta erosten jarraitu da, 310 mila euroko zenbatekoarekin.

1.3 Elikagaien horniketa kontratatzeke espedientean, 2006ko ekitaldian haragi eta arrai freskoari dagokion gastua 79 mila eurokoa izan dena, esleipen irizpidetzat Vitoria-Gasteiz udalerrian banaketa zentro bat izatea hartzen da; ordea, irizpide hau kontratistaren antolamenduari dagokio eta ez kontratuaren xedeari (A1 akatsa).



1.4 Familia esparruan gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratatzeko espedientean, 2006ko ekitaldian 244 mila euroko gastua izan duena, esleipenaren txosten teknikoak ez ditu emandako puntuaketak arrazoitzen (B1 akatsa).

1.5 GOFIren baitako diren hainbat zentrotan garbiketa zerbitzua kontratatzeko espedientean, 283 mila euroan esleitu zena, behin-betiko bermea kontratua izenpetu eta zerbitzua ematen hasi ondoren gordailatu da (C1 akatsa).

II.B.2 HITZARMENAK

2.1 Gizarte zerbitzuekin hitzarmenak: Institutuak egoitza eta eguneko zentroen laguntza zerbitzuen hainbat prestazio finantzatzen ditu, toki entitate, enpresa pribatu, elkarte eta bestelako erakundeekin sinatutako hitzarmenen bidez, ondotik zehaztutako arauketa babes harturik:

- 5/1996 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- Eusko Jaurlaritzaren 40/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskaritza arautzen dituen; honenbestez, laguntza zerbitzuak eman nahi dituzten erakundeek dagokion homologazioa eskuratu behar dute.
- Eusko Jaurlaritzaren 41/1998 Dekretua, hirugarren adinekoentzako egoitza zerbitzu sozialei buruzkoa, 125/2005 Dekretuak eta 195/2006 Dekretuak aldarazitakoa.
- Eusko Jaurlaritzaren 202/2000 Dekretua, mendeko diren zaharrentzako eguneko zentroeiei buruzkoa.
- Eusko Jaurlaritzaren 64/2004 Dekretua, EAEn gizarte zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta obligazioen gutuna onesten duena.

Ondotik, 2006ko ekitaldian aurreko ekitaldiarekiko kontzeptu nagusien gastuak izan duen bilakaera erakutsiko dugu, eguneko zentroak eta egoitzak kontzeptuetan, hain zuzen ere.

GIZARTE ZERBITZUEN HITZARMENAK	Mila euro					
	EGUNEKO ZENTROAK		EGOITZAK		GUZTIRA	
ZERBITZUA EMATEN DUTEN ENTITATEAK	2005	2006	2005	2006	2005	2006
Toki Entitateak.....	798	841	1.173	1.226	1.971	2.067
Elkarteak	267	248	4.647	5.631	4.914	5.879
Erakunde erlijiosoak	51	74	1.513	1.840	1.564	1.914
Besterik	-	-	165	171	165	171
GUZTIRA	1.116	1.163	7.498	8.868	8.614	10.031



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Institutuak hainbat erakunde publiko eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribaturekin gauzatutako lankidetzak hitzarmenak aztertu ditugu eta 2006ko ekitaldian zehar zerbitzuak areagotu direla ikusi dugu, plaza, profesional eta laguntza programen kopuruek gora egin dutelako.

Bestetik, eta hitzarmenak zein datatan luzatzen diren alde batera utzita, erakundeek Aurrekontuan izendatutako zenbatekotik % 90eko aurrerakin hilerokoak jasotzen dituzte, hitzarmenetan lehenengo ordainketa hitzarmena sinatzen den datan egitea aurreikusten denean, data horretan erregularizatzen baitira jasotako aurrerakinak.

Enpresa pribatuek emandako zerbitzuen igoaldia aintzat hartuta, komenigarria litzateke zerbitzu horien handitzeak argitara ematea, zerbitzua emateko beharrezko betekizunak betetzen dituen zeinahi enpresak horretarako aukera izan dezan.

C. GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA (GFE)

II.C.1 ERAKUNDEAREN ANTOLAMENDUA

1.1 GFEren antolamenduan gehiegizko zorrotasuna ikusi dugu, Administrazio Kontseiluari Erakundearen Zuzendari-Kudeatzaileari esleitu ez zaizkion egiteko guztiak esleitu baitzaizkio.

1.2 Erakundearen Zuzendari-Kudeatzaileak Administrazio Batzordeko Presidenteak hala eskuordetuta, azken honi dagozkion eskumen eta egiteko orokorrak betetzen ditu. Eskumen horrek ondorioak eragin ahal izateko ALHAAan argitaratu behar zatekeen, GFEren antolamendu, araubide eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua onesten duen urriaren 18ko 1701/1988 Foru Dekretuaren 9. artikuluko 3. idatz-zatiak aurreikusten duenaren arabera. Honela, bada, Udalekuak programaren jarduera zerbitzua kontratatzeko espedientean, 3.1 atalean aztertu denean, egoera honetatik eratorritako akats bat hauteman dugu.

II.C.2 DIRU-LAGUNTZAK

2.1 2006ko urtean gazteria-programak garatzeko elkarte, entitate eta gazte taldeei emandako diru-laguntzei dagokien gastua justifikatzeko, 105 mila euroko zenbatekoarekin, soil-soilik diruz lagundutako zenbatekodun ordainagiriak aurkezten dira eta ez diruz lagundutako jardueren guztizko zenbatekoarekin.



II.C.3 KONTRATAZIOA

2006ko esleipenak (ikus C.3 eranskina)

3.1 Udalekuak 2006 programaren jarduera zerbitzua kontratatzeko espedientean, 205 mila euroan esleitu zena, kontratazioa Gerenteak gauzatu zuen; ordea, eskumen hori Administrazio Batzordeko Lehendakariari dagokio (B2 akatsa). Honez gainera, prezioaren % 45a zerbitzua ematen hasi aurretik aurreratu da, hori arrazoituko duen txostenik batere egin gabe (C1 akatsa).

HAKLren 182. artikuluen c) letran ezarritako prozeduraren hautaketa justifikatzen duen txostenean I. eranskin gisa azaltzen da adjudikazioa duen enpresak bakarrik hornitu zitzakeela zerbitzua modu eraginkorrean eta proiektuaren zehaztapen teknikoak betez, bere patente batzuetan oinarritutako sistema bat zuelako eta, horri esker, desmuntagarriak ziren Intsinis pinuaren ziurtagiridun egitura egokienak egin zitezkeelako.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren esanetan HAKLren 182. artikuluko c) letran ezartzen den prozeduraren erabilera ez dago behar bezala justifikatuta. Baina Epaitegiaren iritzi hori subjektiboa da; ez du perituaren edo perituen txostenik hartu oinarri moduan eta ez du kontuan hartu txosten horretan azaldutakoen indargabetzen duten eta azaldutako horren kontra doan irizpide teknikorik. Hala ere, iritzi subjektibo hori ez du bakarrik Epaitegiak izan.

5. Arabako Kalkulu Gunea, SA: 2006ko ekitaldian zehar, eta 2004. urtean egindako homologazio espediente bat aplikatuz, informatikako zerbitzu batzuk emateko lau laguntza tekniko kontratatu ziren, prozedura negoziatuaren bidez eta publizitaterik gabe, 724 mila

⁷ Oroitidazki teknikoak ez du egiaztatzen hautatutako lehengaia erabil daitekeen bakarra dela eta berdin-berdin erabil daitezkeen bestelako exekuzio sistemarik existitzen ez denik.



eurotan. Ekitaldian zehar kontratutako zenbatekoek HAKLren 2.2. artikuluan ezartzen diren muga guztiak gainditzen dituztenez, sailkapena eskatu eta lizitazioa EBAOn argitaratu behar izan zen.

ALEGAZIOA

Egindako gogoeta hurrengo kontratuei buruzkoa da:

1. Nekazaritza eta Ingurumena Sailen aplikazioen mantenua 2006ko otsaila eta apirila arteko eperako: 115.243,75 euro, BEZ barne.
2. PC/web aplikazioen mantenua 2006ko otsaila eta apirila arteko eperako: 158.964,90 euro, BEZ barne.
3. Nekazaritza eta Ingurumena Sailen aplikazioen mantenua 2006ko maiatza eta abendua arteko eperako: 206.709,50 euro, BEZ barne.
4. PC/web aplikazioen mantenua 2006ko maiatza eta abendua arteko eperako: 243.999,14 euro, BEZ barne.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arabera, bi enpresatako kontratu bakoitzean pilatutako zenbatekoa aintzat hartuta sailkapena eskatu eta lizitazioa EBAOn argitaratu behar izan zen.

Hala ere, AKGk ez du “zatitu” kontratu horien helburua, enpresaren sailkapena egiteko eta publizitatea jartzeko betekizunak saihesteko asmoz; aitzitik, bata bestearen atzean adjudikazio partzialak egin behar izan ditu, sasoi hartan ezarritako aldi osorako ziren kontratu bien zenbatekoa adjudikatzeko finantzaketa nahikoa ez zuenez finantzaketa izan zuenean bakarrik egin ahal izan zuelako.⁸

Arabako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluko apirilaren 4ko 252/06 Erabakiaren bidez, 842.432,00 euroko kreditua erreserbatu zuen berariaz. Beste batzuen artean, hainbat aplikazioen mantentze lanak eskatu zituen 2006ko abenduaren 31 arte. Hori dela eta, AKGk, aurretik aipaturiko zenbatekoarekin, 2006ko apirilaren 20an hurrengo kontratuak adjudikatu zituen:

1. Nekazaritza eta Ingurumena Sailen aplikazioen mantenua 2006ko maiatza eta abendua arteko eperako: 206.709,50 euro, BEZ barne.
2. PC/web aplikazioen mantenua 2006ko maiatza eta abendua arteko eperako: 243.999,14 euro, BEZ barne.

I.2. KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Asparrenako Udalak, 2006ko abenduan, 1.442 mila euro erreklamatu dizkio Araba Garapen Agentzia, S.A.ri 2002. urtean egin den Asparrena-San Millango industrialdearen plan partzialaren ondoriozko hirigintza aprobeixamenduagatik. Sozietateak ez duenez dirua

⁸ Aurrekontu kreditu ezak ez du kontratazio alorrean ez-betetzea justifikatzen.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

eman, betearazpidean erreklamatu zaio kopuru hori. Araba Garapen Agentzia, S.A. ren ustez likidazioa baliogabea da; horregatik, administrazioarekiko auzi errekurtsua eta baliogabetzeko egintza aurkeztu ditu udalaren ebazpenaren aurka, zorra ordainarazpen bidean ordaindu beharra eteteko eskatuz.

Sozietateak, aurkeztutako errekurtsuaren ebazpena ematen den ala ez alde batera utzita, Asparrenako Udalarekin ari da negoziatzen hirigintzako aprobetxamendutik zein kopuru kendu behar den 1995. urtean sinatu eta 2004. urtean aldatu zen hitzarmena betez industrialdean izan diren gastuen ondorioz. Bi alderdi horiek egiten duten akordioa San Millango Udalari ere aplikatuko zaio.

Txosten hau egin den egunean oraindik argitzeko zegoen erreklamazioen emaitza eta horiek urteko kontuetan izango duten ondorioa.

ALEGAZIOA

2008ko ekainaren 26an ARABA GARAPEN AGENTZIA, S.A.k hitzarmen bat sinatu du Asparrenako Udalarekin; horren helburua da Asparrena-San Millango industrialdea kudeatzea eta, bide batez, aurrekoak aplikatzean dauden desadostasunak eta auziak ebaztea. Era berean, antzeko baldintzak jasotzen dituen hitzarmen-proposamen bat bidali zaio San Millango Udalari.

2007ko ekitaldian 3.463.792,00 euroko hornikuntzak egin ziren, hitzarmen horien ondorioz ARABA GARAPEN AGENTZIA, S.A.k zituen betebeharrak ekonomikoak ordaintze aldera.

2. Kontu Orokorrean ez dira sartu Laudioko Elkartegia, S.A. eta Asparrenako Elkartegia, S.A. sozietateak; Arabako Foru Aldundiak zeharkako partaidetza dauka sozietate hauetan Araba Garapen Agentzia, SAN daukan partaidetzaren bidez (honen akziodun bakarra da). Aldundiak %89,2ko partaidetza dauka batean eta %98 bestean, hurrenez hurren.

ALEGAZIOA

Hau zuzendu da 2007ko Kontu Orokorrean.

Epaitegiaren iritziz, lehenengo paragrafoan azaltzen den zalantza argitzean egokitzapenik egin behar bada ere eta bigarren paragrafoan azaldutako salbuespena kontuan hartuta, foru sozietate publikoen urteko kontuetako alderdi guztietan jaso dira 2006ko ekitaldiko jarduera ekonomikoa, ondarearen eta 2006ko abenduaren 31ra arteko finantza egoeraren irudi leiala eta egun horretan amaitzen zen ekitaldiko emaitzak.



II. BARRUKO KONTROL SISTEMAZ ETA KUDEAKETA PROZEDUREZ

Atal honetan, ekonomia eta finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzean eragin handirik ez duten gorabeherak azaltzen dira, baita kudeaketa hobetzeko asmoz ematen diren prozedurazko alderdiak ere.

A. ARABAKO FORU ALDUNDIA (AFA)

II.A.1 AURREKONTUAREN ETA KONTABILITATEAREN INGURUAN

1.1 Aurrekontuen aldaketak: AFAk ez ditu behar bezala erabili gastuak diruzaintzako gerakinaren kargura finantzatzeko kredituaren gaikuntzak. Guztira 15.281 mila euroko gastua gaitu da: 13.976 mila euro, aurreko ekitaldian xedatzeko fasera heldu ez ziren kredituen saldoak dira edo 2005eko ekitaldiko azken kredituetan sartuta ez zeudenak; eta 1.305 mila euro, 2004ko aurrekontutik 2005ekora sartu zen partida batekoak dira eta 2005ean ez ziren xedatzeko fasera heldu.

Komenigarria da AFAk aldaketaren xedeari begira aurrekontuen aldaketa egokienak erabiltzea.

ALEGAZIOA

53/92 Foru Arauko 64. artikuluan arautzen da kreditu gaikuntza. Izan ere, artikuluko horren arabera, ekitaldian zehar lortzen diren baina Foru Aldundiaren edo foru erakunde autonomoen aurrekontuetako sarreraren egoeran aurreikusi ez diren sarrerek edo, bestela, aipatutako egoeretan aurreikusitako zenbatekoa gainditzen duten sarrerek ordaintzeko kredituak sortu ahal izango dituzte gastuen egoeran.⁹

Horrenbestez, aurrekontuen aldaketa bat dator aldaketa horren xedearekin.

II.A.2 SARRERAK

2.1 Ordainarazpen bidean dauden zorrak: AFAk ez ditu kitatzen premiamendu prozeduraren bidez bildutako zorren berandutze korrituak (Arabako Zerbitzu buruzko Foru Arau Orokorreko 26. art.). Hala, aztertu diren espedienteen arabera, lau zordunek daukate zorra ordainarazpen bidean. Denen arteko zorraren zenbatekoa 2.392 mila euro da eta 2006ko ekitaldian zehar 65 mila euro ordaindu dituzte, Dirubilketa Agentziarekin itundutakoarekin bat etorritik. Ez da likidatu berandutze korriturik.

Ordainarazpen bidean kobratzen diren zorrak Derrigorrezko Dirubilketa Agentziaren beraren kontuetan sartzen dira, eta aldizka, hileko azken egunetan, intsuldaketak egiten dira AFAREN bilketako kontu murriztuetara. 2006ko abenduaren 31n Derrigorrezko Dirubilketa

⁹ Aipatutako artikuluko ordainketa kreditua sortzeko gai diren sarrerek zerrendatzen jarraitzen du eta horien guztien artean ez da ageri diruzaintza geldikin bitarteko finantzaketa.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Agentziak 964 mila euro kobratu ditu bere kontuetan; kopuru hauek AFaren aurrekontuz kanpoko kontuetan erregistratu dira kobratu gabeko zor gisa.

ALEGAZIOA

2007ko abenduaren 31tik, Arabako Foru Aldundiak ordainarazpen prozeduran dauden zorren berandutze korrituak kitatzen ditu. Gainera, egun horretatik aurrera, premiamendu bidean zorrak dituztenei berandutze korrituak ordaintzeko jakinarazpena egin zaie.

2.3 Zatikapenak:

- *2006ko ekitaldian bi zorduneri 2.966 mila euroko printzipalaren zatikatzea onartu zitzaien, baina zatikatze hori aplikatu beharreko araudian (11 hileko) ezartzen den gehieneko epea (22 eta 25 hilabete) gainditzten duten aldietan zatikatzea onartu zitzaien.*
- *Guztira 1.493 mila euroko zor printzipala duten zatikatze espediente bitan, dagokien akordioetan ezarritako hipoteka bermeak atzerapenarekin eratu dira (11 eta 12 hilabete), betiere emateko erabakietan ezarri ziren epeekin alderatuta. Halaber, 2006an onartutako beste zatikatze espediente batek 923 mila euroko printzipala zuen, eta hori emateko erabakian aurreikusitako hipoteka ez zen eratu; dena den, 2006an zor osoa kitatu zen.*

ALEGAZIOA

Zatikatzek onartzeko erabakietan ezarri diren epeekin alderatuta bermeak atzerapenez eratzen direnean, eskatutako berme horiek formalki eratzeko Arabako Foru Aldundiari eta zergadunari ez dagozkien zailtasunak izan direla gertatzen da.

Horren adibidea ohar honetan aipatutako lehenengo espedientea da. Espediente horretan, marka komertzial baten bermea gauzatzeko sortu ziren arazoak 2006ko apirilaren Patenteen eta Marken Bulegoan izandako araudi aldaketaren ondorio izan ziren. Gainera, Arabako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren alde batera emandako bermea zenez eta Merkataritza Erregistroarekin ezadostasunak zeudenez, atzerapena eman zen.

2.4 Besterentzea: Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen diputatuak 2006ko urtarrilaren 11n emandako Foru Arauaren bidez, AFaren lursaila baten besterentzea onartzen da, 1996an AFAk berak egindako baloraziotik lortutako prezioan (enpresak garai hartan lursailak eskatu zituen); prezioa 2005eko apirila arteko KPIarekin eguneratutakoa da. Azkenean 32 mila euroko azken prezioa lortu zen.

Komenigarria litzateke AFAk besterendu beharreko ondasunen balorazioa egitea eragiketa egin ostean ahalik eta arinen, ondasun horien merkatuko balorea errespetatze aldera.



ALEGAZIOA

Ohar honi dagokionez, aipatu behar da besterendu beharreko lurzatiaren balorazio berririk ez zela egin, azalera txikia zenez eta industri lurzoruaren kalifikazioa zuenez, Hirigintza Zerbitzuak 1996. urtean egindako balorazioak indarrean jarraitzen zuela ulertu zelako; horrez gain, igarotako denborari –hamar urte- zegokion KPIaren araberrako eguneratzean aipatutako kalifikaziodun lurzoruaren prezioaren bilakaera behar bezala islatzen zela ulertu zen.

II.A.3 EROSKETAK ETA INBERTSIOAK

Kontratu txikiak eta beste batzuk

3.1 Ondasun arruntak eta zerbitzuak eta inbertsioak eskuratzeko administrazio kontratu txikietan, ohartu gara eskuraketa batzuk prozedura negoziatuaren bidez izapidetu behar zirela, urtean zehar eskuraketa berak edo antzekoak gertatu baitira edo aldi bertsuan antzeko agindua egin baitzaio hornitzaile berari. Hona eskuraketa horien kontzeptuak eta zenbatekoak:

KONTZEPTUA	Euroak milakoetan		
	Enpresa kop.	Faktura zk.	Zenbatekoa
Moldiztegiko materialaren hornidura.....	6	256	252
Ibilgailuak konpontzea eta mantentzea	4	92	177
Eraikinak eta errepideak konpontzea eta zaintzea	3	22	134
Ordezkoen hornikuntza	1	9	25
Prokuradoreen gastuak	2	54	42
Hainbat materialen hornikuntza	1	4	20
Hainbat zerbitzu ematea.....	2	51	58
Gesaltza Añanako Plan Zuzentzailea (inbertsioa).....	1	3	19
Azoketan hainbat instalazio jartzea (inbertsioa)	1	1	13
Iruña-Veleian indusketa lanak (inbertsioa).....	1	4	27
Martiodan lanak (inbertsioa)	1	3	41
Azoka eta lehiaketetarako egiturak (inbertsioa)	1	1	13
Apalen eta bulegorako altzarien hornikuntza (inbertsioa).	2	12	36
Ikasketa eta proiektuak (inbertsioa).....	1	5	27



ALEGAZIOA

- “Moldiztegiko materialaren hornidura”: 6 enpresa eta 251.910,24 euroko zenbatekoa.

Moldiztegiko era askotako materialak hornitu dira eta, gainera, artikulua bakoitza formatu eta tamaina askotan, betiere zentzuzko irizpidea aintzat hartuta. Hori dela eta, zerbitzua kontratatzekeo prozedura irekitzeko eta eguneratuta mantentzeko proiektua ekonomikoko ez da bideragarria.

Horrez gainera, gogoan izan behar da paper gauzen eta antzekoen merkatuak oso hegazkorrak direla eta prezioak etengabe aldatzen direla: horrek are gehiago eragozten du aleko prezioetan oinarritutako kontratazio prozedura burutzea eta prozedurok nahikoa luzatzea ekar dezake.

- “Tbilgailuak konpontzea eta mantentzea”: 4 enpresa eta 176.740,84 euroko zenbatekoa.

Gastu horiek hainbat hornikuntza eta zerbitzuri dagozkie. Alabaina, hornikuntza eta zerbitzu horiek ez ziren homogeneoak; lokabeak eta denboran aurreikusi ezinezkoak ziren, beharizan ezberdinetarako direlako. Horrenbestez, ezin dira kontratazio bakar bat edo gehiagotan sartzeko moduko baldintza koherenteetan (dagokion legerian aurreikusitakoetan) bateratu, zatikatutzat jo daitekeen kontrataziorako xede uniforme osatzen ez dutelako.

“Eraikinak eta errepideak konpontzea eta mantentzea”: 3 enpresa eta 134.129,70 euroko zenbatekoa.

Zazpi dokumentu zehazten dira, enpresa batek Lacorzana, Caicedo Yuso eta Langarikako sarbiderako, A-4342 Leziñanako errepidean, eta Ozeda, Menoio eta Okarizko sarbideetarako egin dituen konponketa eta birgaitze lanen ingurukoak. Guztira 57.981,97 euro.¹⁰ Horri dagokionez esan behar da, lan horiek probintziako puntu geografiko ezberdinean egin direla. Lan bakoitzak arazo eta konponbide jakin batzuk izan ditu; gainera, lan bakoitza aldi ezberdinean egin da, errepidearen hondaketa kontuan hartuta. Beraz, ezin ziren aipatutako lan guztiak kontratu bakarrean bildu, bestela bidearen segurtasuna alde batera utzi behar izango zelako.

Bestalde, beste enpresa batek sei lan egin ditu: guztira 45.962,79 euro. Bulegoak egokitu ditu, sabai izunak konpondu ditu eta paramentuen pintura duten manparak birbanatu ditu Arabako Foru Aldundiko laborategi nagusian. Eraikin horretan, gainera, aire girotua jarri du eta galeriako adreilua fabrikatu du; laborategiko komunean eta garajejan (lokal bereizia berau) lan batzuk egin ditu, eta zerbitzuen atalean instalazio elektronikoaren kanaletan hormigoizko plakak konpondu ditu. Ikusten denez, lan horiek guztiak ezberdinak eta lokabeak dira; lanok ezin dira sartu kontrataziorako xede uniforme eta homogeneo

¹⁰ Obra hauei dagozkien zazpi ordainagiriak hilabete inguruko epean jaulki dira.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

batean. Bestalde, eta lanak banaka hartuta, kontratu txiki batean ezarritakoa baino gastu txikiagoa dute.¹¹

- “Prokuradoreen gastuak”: 2 enpresa eta 41.744,21 euroko zenbatekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian eta Auzitegi Gorenean lan egiten duten prokuradoreek bakarrik ordezkatzten dute Foru Aldundia edo, noizean behin, Konstituzio Auzitegian lan egiten dutenek Foru Administrazioak hasitako edo haren aurka sustatutako prozeduretan. Izan ere, Botere Judizialaren Lege Organikoko 551. artikuluan eta Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 221. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Lege Aholkularitza Zerbitzuko legelariak ordezkatu eta defendatu behar dute Aldundia administrazioarekiko auzien epaitegietan.

Prokuradoreek urte bakoitzean igorriko duten zenbatekoa ez dago alde zuzenik zehazterik, zeren kobratzen dituzten eskubideen zenbatekoa Foru Aldundiaren aurka sustatzen diren errekurtsoen kopuruaren eta horietako bakoitzari auzibide ondorioetarako ezartzen zaien zenbatekoaren arabera baita.

Gutxieneko tarifak eta tarifa orientagarriak onartuta dituzten elkargo ofizialetako profesional askeek (abokatuak, arkitektoak, etab.) ez bezala, prokuratzaileek azaroaren 7ko 1373/03 Errege Dekretuan ezarritako muga-zergak aplikatuz eratzten dituzte beren eskubideak eta aurrerakinak. Horrela, horietariko edozeinek, kopuru bereko prozedura judizialean zenbateko bera kobratuko du. Hortaz, lizitazio izapide baten bidezko hautaketetan Foru Aldundiak ez du inolako abantaila kuantitatiborik izango.

- “Hainbat materialen hornikuntza”: enpresa 1 eta 20.462,40 euroko zenbatekoa.

Kontabilitateko lau dokumentu eta beste horrenbeste faktura zehazten dira enpresa baten alde: guztira 20.462,40 euro. Gorbeia parkerako, Valderejo parkerako eta Izki parkerako bi seinale mota hornitu dira. Hornitutako produktu guztiek dituzte xede duten parkerako berariaz aukeratu diren ezaugarriak eta itxura. Banakako zenbatekoa, bestalde, hornikuntzarako kontratu txiki baterako eskatutakoa baino txikiagoa da.¹²

- “Gesaltza Añanako Plan Zuzentzailea”: enpresa 1 eta 19.201,71 euroko zenbatekoa.

Kontabilitateko hiru dokumentu eta beste horrenbeste faktura zehazten dira sozietate zibil baten alde: guztira 19.201,71 euro. Ordaindutako hiru lanak “Gesaltza Añanako haran gazia osotara berreskuratzeko plan zuzentzailea. 1. fasea. 2006. urtea” izenekoaren barruan sartzen dira. Hona hemen aipatutako lan horiek: gidatutako bisitak eta informazio panelak hobetzeko memoria baloratua, oinak garbitzeko putzuaren burutzapen proiektua

¹¹ Lanak eraikin berean egiten dira.

¹² Produktu homogeneotzat hartzen dira.



eta segurtasunerako azterketa, komunen burutzapen proiektua eta segurtasunerako azterketa eta itzaltzegia burutzeko proiektua. Ikus daitekeen moduan, lan bakoitzak helburu ezberdina du, eta, ondorioz, zerbitzuak ezin dira pilatu.¹³ Aurreko guztiaz gain, fakturen banakako zenbatekoa zerbitzuen kontratu txiki baterako eskatutakoa baino txikiagoa da.

- “Apalen eta bulegorako altzarien hornikuntza”: 2 enpresa eta 36.262,98 euroko zenbatekoa.

Kontabilitateko zazpi dokumentu eta beste horrenbeste faktura zehazten dira enpresa baten alde, eraikin eta bulego ezberdinetarako hainbat apal hornitu duelako: guztira 18.263,02 euro. Horri dagokionez azaldu behar da hornikuntza horiek aurretik planifikatu gabe zeudela; ekitaldian zehar egin dira behin-behinean, ezustean eta berez baina aldeztu aurretik inork jakin gabe zein ziren horien helburua, ezaugarriak, zenbatekoa eta beharrezakoa.

Kontabilitateko bi dokumentu eta beste horrenbeste faktura zehazten dira beste enpresa baten alde, inausketaren hondakinak biltzeko hogeitaz kutxa eta hondakinetarako hiru ontzi hornitu dituelako: guztira 17.999,96 euro. Hornikuntza bakoitza 8.999,98 eurokoa izan da. Ikusten den bezala, produktu ezberdinen berezko hornikuntza lokabeak dira.

- “Azterlanak eta proiektuak”: enpresa 1 eta 27.019,62 euroko zenbatekoa.

Kontabilitateko bost dokumentu eta beste horrenbeste faktura zehazten dira fundazio baten alde: guztira 27.019,62 euro. Izan ere, zenbateko hori ondokoetarako erabili da: Fontecha Dorrean tailer bat eraikitzeko proiektu arkeologikoa, Jokanoko San Martin elizaren azterketa stratigrafikoaren proiektua, Trokonizko San Bizente elizaren azterketa stratigrafikoaren proiektua, Quintanillako (Valdegovía) San Julian elizaren azterketa stratigrafikoaren proiektua, Labrazako San Migel elizaren azterketa stratigrafikoaren proiektua, Munaingo Andre Maria Sortzez Garbiaren eliza berritzeko lanen kontrol arkeologikoa eta Atiagako Santa Eulalia elizaren azterketa stratigrafikoa. Ikusten den bezala, eta kontuan hartuta berezko ezaugarriak dituela, zerbitzu horien helburua zehatza da; ondorioz, ezin dira kontratu bakarrean sartu.

2006ko adjudikazioak eta aurreko urteetako kontratuak (Ikus A.7.1 eta A.7.2 eranskinak).

3.2 Lehiaketa bidez adjudikatutako sei obra kontratutan (26.160 mila euro) AFAk kontratisten kaudimenaren inguruko irizpideak erabili ditu adjudikaziorako, hain zuzen ere langileen edo giza baliabideen kualifikazioa (2, 4, 5, 6, 7 eta 9 zk.ko esp.). (A1 akatsa).

13 Data bereko hiru ordainagiri dira, enpresa berak eta proiektu berean egindakoak: Gesaltza-Añanako Gatz Harana osorik berreskuratzeko Gidaplana.



Gaitasun teknikoa lizitazio fasean frogatu behar da; adjudikazio fasean ezin da baloratu, fase honetan eskaintza baizik ez baita hartu behar kontuan.

ALEGAZIOA

Ezin da Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitako oharrarekin bat etorri, behintzat aipaturiko lehenengo bost espedientei dagokienez. Horietan guztietan, eskaintzen balorazio irizpideek % 30eko balorazioa ematen diote hurrengoari:

“2.- Eskaintzaren balore tekniko handiagoa honen arabera:

- Eraikuntzaren memoria; lanak gauzatzeko, eskatzaileak obren burutzapenarekin lotzen dituen baliabide materialak, ekipo mekanikoak eta teknikoak antolatzeke eta trafikoan eragindako kalteak gutxiagotzeko metodologia justifikatuz; eta materialen hornikuntzaren bermea.
- Lan programen kalitatea eta burutzapenaren bermea.
- Lehiakideak aurkeztu beharreko aleko prezioen zerrenda, agiri honetako 8.4.2. idatz zatian zehaztutakoarekin bat etorritz.

Aurreko irizpidean baloratu diren baliabide materialak ezin dira kaudimen teknikoaren betekizun bezala hartu; aitzitik, eskaintzak baloratzeko eta adjudikatzen den lizitazioaren proiektua egokitzeko ezinbesteko elementutzat hartu behar dira. Onartzeko irizpide gisa kontratista sailkatuta egon beharrak (kaudimen teknikoa) ez du zerikusirik proposatutako lan programaz nahitaez egin beharreko balioespenarekin, bitarteko materialei dagokienez (adib., makineria zehatza, metaketak egiteko konpromisoak, etab.).¹⁴

3.3 *Guztira 4.941 mila euroekin adjudikatutako bi espedientetan (11 eta 16 zk.ko esp.) AKBAetan ez da behar bezala zehazten adjudikazio irizpideak aplikatzeko modua. Geroko adjudikazioari buruzko txosten teknikoetan zehazten dira irizpideok eta horiek baloratzeko modua (B1 akatsa).*

ALEGAZIOA

Bi espedienteetan, eskudun sailek egindako txosten teknikoetan eta adjudikaziorako proposamenetan baloratu ziren eskaintzak Administrazio Klausulen Agirietan jasotako adjudikatzeko irizpideak betez. Alabaina, jarduera horri dagokion nahierakotasun teknikoa baliatuz eta horietan sartzeko moduko alderdien arabera interpretatu, garatu eta gauzatu ziren irizpideak. Azken finean, batzuetan nolabaiteko abstrakzioa duten baloraziorako irizpideen aplikazioa ahalik eta gehien bultzatu eta objektibizatu nahi izan da.

¹⁴ Enpresek atxikitako baliabide pertsonal eta materialak balio-neurtzen dira; hori kaudimena egiaztatzeke bidea da, ez, ordea, kontratua esleitzeko irizpidea.



Ezin da ahaztu HAKLTBean (eta indarreko kontratuen araudian) ezarritakoaren arabera irizpideak objektiboak izan behar direla baina, era berean, nolabaiteko abstrakzioa izan behar dutela eta baloraziorako eta interpretaziorako lan teknikoa behar dutela (adib. kalitatea, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak). Kontua ez da formula matematikoak soilik aplikatzea.

3.4 *Guztira 19.660 mila eurotan adjudikatu diren sei espedientetan (4, 5, 6, 7, 12 eta 16 zk.ko esp.), adjudikatzeko proposamenaren oinarri diren txosten teknikoek ez dute justifikatzen lizitzaile bakoitzari emandako puntuazioaren gaineko balorazioa (B2 akatsa).*

Kontratazio organoak beti arrazoiztatu behar ditu bere ebazpenak baldintzen agirian ezarritako adjudikazio irizpideak oinarritzat hartuta, HAKLTBeko 88.1. artikuluan ezarri den bezala.

ALEGAZIOA

Ohar honetan aipatzen diren espedienteetan, eskudun sailek egindako txosten teknikoak eta adjudikatzeko proposamenak jasotzen dira. Horiek, Administrazio Klausulen Agirian jasotako adjudikaziorako irizpideak betez baloratu zituzten eskaintzak, baina Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren ustez ez da behar bezala arrazoitu lizitzaile bakoitzari emandako puntuazioa.

Ohar hori oso subjektiboa dela alde batera utzita, paradoxikoa da bai motibazio praktika soila zein kontrakoa zentsuratu dela ikustea, batez ere aurreko oharrean zalantzan jartzen denean adjudikazioari buruzko txosten teknikoetan irizpide horiek eta baloratzeko modu hori zehaztu beharra.¹⁵

3.5 *Atzerapenak gertatu dira aztertutako kontratazio espediente batzuen izapidetzean. Hain zuzen ere:*

- *Guztira 3.162 mila eurotan adjudikatutako bi espedientetan (8 eta 13 zk.ko esp.), adjudikazioa atzerapenarekin eman da (17 egun eta 5 hilabete, hurrenez hurren). (B3 akatsa).*
- *2006an adjudikatu ziren bost espedientetan eta aurreko urteetan adjudikatu ziren lau espedientetan (4, 5, 7, 8, 15, 22, 26, 27 eta 28 zk.ko esp.), guztira 66.072 mila eurotan adjudikatutakoetan alegia, lanerako programak atzerapenarekin onartu dira (13 egun eta 6 hilabete bitartean). (C1 akatsa).*

¹⁵ Lege hauste honetan HKEEk adierazi du sei espedientetan txosten teknikoek ez dutela lehiatzaile bakoitzari emandako puntuaketen balorazioa justifikatzen eta aurrekoan, berriz, bi espedienteetan AKPpek ez dituztela esleipen eta balorazio irizpide guztiak zehazten.



- *Guztira 16.059 mila eurotan adjudikatutako lau espedientetan (4, 8, 27 eta 28 zk.ko esp.), Seguritasun eta Osasun Plana lanak hasi ondoren onartu da (C3 akatsa).*
- *Aurreko urteetan 2.755 mila eurotan adjudikatu ziren lanei buruzko hiru espedientetan (24, 30 eta 33 zk.ko esp.), kontratuan ezarritako epearen aldaketa hasieran kontratua amaitzeko aurreikusitako eguna igaro ostean onartu zen (C4 akatsa).*
- *Guztira 8.089 mila eurotan adjudikatutako hiru espedientetan (22, 30 eta 33 zk.ko esp.), AFAk ziurtagirien ordainketan atzerapena izan du (C5 akatsa).*
- *Guztira 5.201 mila eurotan adjudikatutako hiru espedientetan (23, 24 eta 33 zk.ko esp.), lanen onarpen akta atzerapenarekin egin zen aurreikusitako amaiera epearekin alderatuz gero (C8 akatsa).*

ALEGAZIOA

Aurreko ohar guztietan, kontrataziorako espedienteen izapideak betetzean atzerapenak izan direla aipatzen da. Atzerapen horiek ez diote inolako kalte ekonomikorik ekarri Arabako Foru Aldundiari, baina barruko kontrolaren ardura duten unitate organikoek uste dute kontrataziorako espedienteen ziozko betebeharrak material eta formal guztiak zorrotzago bete behar direla.

Bi kontraturen adjudikazioa atzeratu izanari dagokionez, HAKLTBren 89. artikuluan hiru hilabeteko gehieneko epea ezarri da, kontratua adjudikatzeko proposamenak aurkezteko epea irekitzen denetik zenbatzen hasita. Alabaina, aipatutako gehieneko epe hori ez betetzearen ondorio bakarra zen lizitatzailleek proposamenetan atzera egiteko aukera zutela eta, orduan, emandako bermea itzultzeko eskubidea balia zezaketela. Egia da atzerapen horiek aipatutako espedienteetan eman zirela, baina lizitatzailleek ez zuten baliatu eskubide hori. Horrenbestez, onartutako adjudikazioak erabat baliozkotzat jo dira.

3.6 *2006an guztira 4.743 mila eurotan adjudikatutako espediente batean (11 zk.ko esp.) ez da lanerako programa aurkeztu. Guztira 50.168 mila eurotan adjudikatutako zazpi espedientetan (2, 4, 5, 15, 26, 27 eta 28 zk.ko esp.) eskuduna ez zen organo batek (Foru Aldundia) eman zuen onarpena (C2 akatsa).*

ALEGAZIOA

Agurainen zaharren egoitza bat egiteari buruzko espedienteetan adierazi denaren arabera, adjudikaziodunak aurkeztu zuen lan programa, eskaintzako gainerako agiriekin batera, eta ez da ezertan aldatu; hala ere, ez zen berariaz aurkeztu adjudikazioaren ondoren. Hau da, lanerako programa ez izatea gabezia formala baino ez da; dokumentu hori ez da aurkeztu adjudikazioaren ostean eta kontratazioaren organoak ez du onartu. Hala ere, programa espedienteetan jaso da eta horregatik erabili zen kontratuaren burutzapenaren jarraipena eta kontrola egiteko.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

3.8 *Guztira 41.904 mila eurotan adjudikatutako sei espedientetan (8, 11, 12, 13, 26 eta 33 zk.ko esp.) lanen finantzaketa erritmoa ez da bat etorri burutzapenaren erritmoarekin (HAKLTBren 14.3. artikulua). (C7 akatsa).*

ALEGAZIOA

Ohar honetan aipatzen diren kontrataziorako espedienteetan atzerapenak izan dira eta, ondorioz, hasierako adjudikazioetan ezarri ziren burutzapen epeak aldatu behar izan dira. Denetan bete dira finantzaketaren erritmoa lanak burutzeko erritmora egokitzeko beharrezkoak ziren izapideak, baina egokitzapen hori Herri Kontuen Euskal Epaitegiak txosten honetan aztertutakoa baino ekitaldi bat geroago egin da, askotan lanak askoz aurreratuago egon arte ezin izan zaiolako zenbatespen berri eta fidagarria egin lanerako programari. Ildo horretan, 26. zenbakiko espedientean, 2006ko abenduan urtekoen birbanaketa egin zen aurreikusitako burutzapenaren erritmoa egokitzeko. Dena den, hilabete horretan izan ziren atzerapen berrien zioz finantzaketa berriz egokitu behar izan zen.

Gainera, aipatutako kontratuak urte anitzekoak ziren eta bermatuta zegoen kontratuak indarrean zeuden bitartean sortzen ziren betebeharrak guztiak ordaintzeko aurrekontuko kreditua.

3.9 *Guztira 445 mila eurotan adjudikatutako laguntza teknikorako espedientean (21 zk.ko esp.) ez da gauzatu lanen onarpen akta. Beste alde batetik, 1.747 mila eurotan adjudikatutako lanen beste espediente batean (18 zk.ko esp.) lanen onarpen akta sinatu zen baina lanak ez zeuden guztiz amaituta (C9 akatsa).*

ALEGAZIOA

Aipatutako laguntza teknikoaren onarpen akta 2006ko abenduaren 18koa da,¹⁶ eta kontratuaren likidazioa 2006ko abenduaren 28ko Diputatuen Kontseiluan onartu zen.

3.11 *Aurreko urteetan 1.733 mila eurotan adjudikatutako bi obratan (30 eta 33 zk.ko esp.) burutzapen epea behin baino gehiagotan luzatu zen; orduan, eta adjudikazioan ezarritako amaiera epearekin alderatuta, lanak amaitzeko epea asko atzeratu zen. AFAn kontratuak adjudikatzeko erabiltzen duen irizpideetako bat, aitzitik, epea da (D akatsa).*

ALEGAZIOA

¹⁶ Agiri hori ez zaio APKLTBren 110.3 artikuluan finkatutako aktari egokitzen edo Kontratuen Lege Orokorren Erregelamenduaren 204 artikuluari.



Herri Kontuen Euskal Epaitegiak seguruenik badaki administrazio kontratuen burutzapenean hainbat gorabehera gerta daitezkeela, eta horiek, hasieran onartutako plangintzarekin alderatuta atzerapenak sor ditzaketela. HAKLTBren 95 eta 96 artikuluetan bereizi egiten da atzerapena kontratistari egotzi beharreko arrazoiengatik eman den ala ez; horrez gain, honakoak ere aurreikusten dira: zigorren ezarpena, kontratua azkentzea edo hasierako burutzapen epea luzatzea.

Aipatutako bi espedienteetan, adjudikaziodunari egotzi ezin zaizkion arrazoiak daudela eta horiek atzerapena ekarri dutela justifikatzen duten txosten teknikoak jaso dira; txostenotan, gainera, kontrataziorako organoek adostu dituzten epeen luzapenak ere justifikatzen dira. Batean, kontratuaren xede diren artapen lanen eraikineko fatxadan dauden elementu batzuk oso hondatuta daude eta lanak egiten ziren bitartean ikusi da horien egoera. Horrela, elementuok gainerako lanetatik bereizi eta zaharberritze artistikoa egin behar izan zaie. Beste espedientearen xedea bideen eta zubiaren sareko lanak ziren, lurzatien pilaketa gune jakin batean egin beharrekoak; bada, bertan, lanak egiten ziren bitartean sortu ziren arazoan ondorioz, bideen errodadura oinarrien gaineko kontrol osagarriak egin behar izan ziren. Azken espedienteetan, gainera, lanak hartzean ikusi zen horiek burutzeko asmoz luzatu zen epea gaudituta zegoela eta, orduan, kontratazio organoak 129/2007 erabakia hartu zuen otsailaren 20ko Diputatuen Kontseiluan. Erabaki horren bidez, adjudikazioa duen enpresari zigorra jarri zitzaion, lanen atzerapena berari egotzi beharrekoa baitzen (onartutako epeen luzapenen ostekoa).

Bestalde, egia da epea izan zela bi kasuetan lizitazioan aurkeztutako eskaintzak baloratzeko erabili zen irizpideetako bat, baina atzerapenen arrazoiak aztertu ondoren (adjudikaziodunari egotzi ezin zaizkionak eta balorazioa egitean aurreikusi ezin zirenak) esan daiteke epeen luzapenek ez dutela nabarmen aldatzen edo erabat itxuraldatzen eskaintzen gainean egindako balorazioa.

II.A.4 DIRULAGUNTZAK (Ikus A.8 Eranskina)

Azaroaren 17ko dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak lehenengo xedapen iragankorrean ezarri zuen legea indarrean sartu eta urtebeteko epea izango zela dirulaguntzen araudia legean ezarritako araubide juridikoarekin bat etortzeko, eta epe hori 2005eko otsailean agortu zen. Aitzitik, eta AFAn egokitzapena ez duela egin kontuan izanda, 38/2003 Legeak Estatuko oinarrizko legeria moduan ezartzen dituen alderdiak aplikatuko dira.

4.1 Dirulaguntza izendunak:

- *2006ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan dirulaguntza izendun gisa jaso dira “beste sail batzuetan jaso ez diren eta irabazi asmorik ez duten erakundeei emateko dirulaguntzak” izenekoak; horiek Diputatu Nagusiaren dekretu bidez eman zaizkie 40 erakunderi, oso helburu ezberdinekin. 125.000 euroko zenbatekoa eman da guztira eta horiek dirulaguntza izendun eta banakakotzat jotzea ez dator bat ALHko dirulaguntza eta*



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

transferentziei buruzko 3/197 FAKo 7. artikularekin. Izan ere, izaera orokorrekoak dira eta onuraduna ez da gaia eta helburuaren arabera zehazten (E akatsa).

ALEGAZIOA

Arabako Lurralde Historikoko 2006rako aurrekontuek, Biltzar Nagusiek onartutakoek, izendun dirulaguntzen eranskinean ohar honetan aipatutakoa jaso zuten.

Jakina da eskudun organoa bera dela bi kasutan: dirulaguntzak emateko araubidearen erregulazio araudia onartzen duena, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentziei buruzko 3/1997 Foru Arauan gauzatutakoa, eta gerora dirulaguntza horiek jasotzen dituen aurrekontuak onartzen dituen. Horrela, aipatutako araubide orokorraren aldaketa inplizitua jazotzen da, maila bereko xedapen arauemaile baten bidez.¹⁷

- *AFA eta Vía Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietatearen arteko hitzarmena 1.000.000 eurokoa da (600.000 euroko konpromiso kredituak barne) eta ez dago nahiko definituta (Vitoria-Gasteiz, Araba eta aireportuari buruzko marketing kanpaina egitea Interneten). Izan ere, ez dira zehaztu burutuko diren ekintzak eta horietako bakoitzari dagokion aurrekontua, hortaz, ezin dugu egiaztatu aurreikusitako ekintzak bete direla (B3 akatsa). 2006. urtean emandako dirulaguntzaren zenbatekoa 261.000 eurokoa izan da azkenean. Gainera, hitzarmenean aurreikusitako jarraipen batzordea ez da eratu (D akatsa).*

ALEGAZIOA

Arabako Foru Aldundiaren eta Vía Promocion del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietatearen artean sinatutako hitzarmenaren kasuan, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak hauteman du helburua ez dela nahikoa definitu, eta bere aburuz, ezinezkoa da bete den egiaztatzea. Adierazpen horrekin bat etortzea zaila da espediente osoa aztertu eta horren garapenean Arabako Foru Aldundiak errenkan gauzatu dituen jardunei erreparatzen badiegu.

Hasieran, 400.000 euroko gastua baimendu zen, 2005eko abenduaren 28an onartu zen Diputatuen Kontseiluko hitzarmena betez. Hasierako baimena eman arren, azkenean, bakarrik 261,4 mila euro kobratzeko eskubidea aitortu zitzaion onuradunari eta, gainera, diruz lagundutako jardunak justifikatzeko fasean, 55,6 mila euro itzultzea eskatu zitzaion. Horri bidezko berandutze korrituak gehitu zitzaizkion, jasotako dirulaguntza gehiegizkoa zelako lagundutako zenbatekoarekin alderatuta.

¹⁷ Diru-laguntzen araudi orokorrean barne hartutako oinarriko kontzeptuak dira.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hau da, Arabako Foru Aldundiak helburuaren justifikazioa egiaztatu ahal izan zuen, baita sozietate onuradunak egindako zorra ere. Horrenbestearainokoa izan zen, gehiegizko dirulaguntza zegoela hauteman zuela eta bere itzulketa behar bezala eskatu zuela.¹⁸

- *Gasteizko Elizbarrutiko Gotzaintzak eta AFak 1.000.000 euroko hitzarmena sinatu zuten Gasteizko Elizbarrutiaren ALHko kultur ondareko ondasun higiezinak zaindu, birgaitu edota zaharberritzeko. Bertan zehazten da AFak, orokorrean, lanak kontratatzearen aurrekontuaren % 50 ordainduko duela eta beharrezkoa izanez gero, salbuespen egoera eta garrantzi handikoetan, zehaztutako zenbatekoa baino altuago zehaztu ahal izango duela. Guztira 948.000 eurokoa den hitzarmenean ezarritako Batzorde Mistoak onartu dituen hamasei jardunetatik hamahirutan aipatutako ehuneko % 50 baino altuagoa da. Eta ez dira zehaztu jardun horien salbuespen egoeraren arrazoiak edo ALHrentzat duten garrantzia. Gainera, lanen hasiera eta jasotze aktak ez dira formalizatu, hitzarmeneko 7. klausulan ezarritakoari jarraiki (E akatsa).*

ALEGAZIOA

Diruz lagundutako jardunei Arabako Foru Aldundiak emango dien zenbatekoaren ehuneko hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak aurreko urteetan hartutako eta aktan jasotako erabakien menpean zehaztu da. % 50etik % 80ra igaro zen ehuneko hori Batzordearen uztetan Lurralde Historikoarentzat garrantzitsua zen salbuespeneko kasuetan.

Nolanahi ere, Diputatuen Kontseiluko apirilaren 29ko 273/2008 Erabakiaren bidez, alde bien arteko lankidetzak hitzarmen berria sinatu da. Ekainaren 2an sinatu da hitzarmen hori eta lanak hobeto gauzatzeko egin da, hautemandako gabeziak zuzendu baitira.

- *AFak jardun zehatzak edo inbertsioak egiteko sinatutako bi hitzarmenetan, 240.000 eta 472.000 euroko zenbatekoa zutenak (124.000 euro barne konpromiso kredituetarako), ez da egiaztatu dagozkien hitzarmenetan ezarritako jarraipen batzordeak eratu denik (D akatsa).*

ALEGAZIOA

Eragozpenak izan ohi dira lankidetzak hitzarmen batzuetan ezarritako jarraipen batzordeak eratzeko, baina, hala ere, sail eskudunaren ordezkariak eta dagozkien helburuak osatzen dituzten jardunen kontrol eta jarraipenarako aztertutako dirulaguntza jaso duen sozietatearen ordezkariak hainbat aldiz bildu dira.

¹⁸ HKEE honek akats modura jasotzen du hitzarmenaren xedea behar bezain zehaztua ez egotea, egin asmo diren ekintzak ez baitira zehaztu eta ez baitago ekintza bakoitzeko aurrekonturik. Alegazioa gauzatatutako gastuen justifikazioari dagokio. Gardentasunak jarduera publiko orearen oinarritzko printzipioa izan behar du.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- *AFAk eta Autopista Vasco-Aragonesak Ziorraga-Altube tartean ibilgailu astunen bidesaria finantzatzeko sinatutako lankidetza hitzarmena luzatzeko espedientean (zenbatekoa: 234 mila euro) ez dago jasota Ordainpeko Autobide Nazionalen Sozietate Kontzesionarioen Gobernuaren Ordezkaritzak eman beharreko luzapenaren baimenik (E akatsa).*

ALEGAZIOA

Hitzarmenaren luzapenerako aldez aurretik Ordainpeko Autobide Nazionalen Sozietate Kontzesionarioen Gobernuaren Ordezkaritzak baimena eman behar badu ere, baimen hori ezinbesteko betekizuna da hitzarmena sinatu duen beste alderdiaren, hau da, Autopista Vasco-Aragonesaren borondatea osatzeko. Aurreko urteekin alderatuta 2006. urtean inguruabarrak ez direnez aldatu, aurrekoetan berariazko baimena emana zuen ordezkaritzak, eta bi alderdiak lankidetza eta konfiantza harreman onetan daudenez gero, Arabako Foru Aldundiak ez zuen eskatu betekizuna beteta zegoela frogatzerik.

- *Santa Maria Katedrala Fundazioari 1.000.000 euroko dirulaguntza eman zaio sendotze, zaharberritze eta birgaitze lanetarako. Hala ere, dirulaguntzen urteko hitzarmenetan ez dira adierazi onuradunak, dirulaguntza kobratzeko eskubidea izan dezan, bere gain hartzen dituen betebeharrak materialak eta formalak (E akatsa).*

ALEGAZIOA

Santa Maria Katedrala Fundazioari sendotze, zaharberritze eta birgaitze lanetarako emandako dirulaguntzan ez da zehazten onuradunak dirulaguntza kobratzeko eskubidea izan dezan zein betebeharrak material eta formal hartu behar dituen bere gain; hori gorabehera, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak espedientean egiaztatu ahal izan du kobratzeko eskubidea dirulaguntzaren helburua bete eta hori gauzatzeko egindako gastuak justifikatu baino lehen eman zaiola.

Azpimarratu beharra dago Santa Maria Katedralako Fundazioaren (Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteizko Udala eta Gasteizko Elizbarrutiko Gotzaintzak eratzen dute eta Fundazioaren Patronatuaren lehendakaria Arabako Diputatu Nagusia da) beraren kontrol eta kudeaketa organoen izaera eta osaerak aukera eman dutela Arabako Foru Aldundiak zehaztapenean modu erabakigarrian esku hartu izana, nahiz eta dirulaguntza ematerako orduan ez ziren eman gauzatuko ziren jardunen zehaztapen guztiak.

Aurrekoak horrela, erabaki proiektu bat izapidetu da, 2008. urte honetan Diputatuen Kontseiluak onartu behar duena. Horren helburua da Fundazioak Arabako Foru Aldundiaren aurrean bete beharreko baldintzak modu zehatzagoan adieraztea, dirulaguntza kobratzeko eskubidea eman diezaioten.

4.2 Zuzeneko dirulaguntzak:



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- *Urteak dira behin eta berriro, eta zuzenean, irabazteko asmorik gabeko enpresa eta erakunde bati dirulaguntzak eman zaizkiela, publizitate eta lehia printzipioetatik salbuetsiz eta 159.000 euroko dirulaguntza emanez. Errepikakorrak diren aldetik, AFAk dirulaguntza izendun gisa ezarri beharra aztertu beharko luke.*

ALEGAZIOA

Alegazio honi dagokionez, hemen aipatutako bi egoeretatik bat, Alava Incoming-ekin sinatutako lankidetzaren bidez instrumentalizatutako dirulaguntza, jada dirulaguntza izendunen eranskinean jaso dela, 2008ko Arabako Lurralde Historiko aurrekontuetan.

- *Arabako Errioxako ardoaren bidea sustatzea helburu duen eta publizitate eta lehia izan ostean eman den 376.000 euroko dirulaguntzarako, hitzarmenean ezarritako ekintzak orokorrak dira eta ez dago ekintza bakoitzerako aurrekonturik. Hortaz, ezinezkoa da aurreikusitako ekintzak bete direla egiaztatzea (B3 akatsa).*

ALEGAZIOA

Aurreko kasuan bezala, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aztertutako dirulaguntzaren gaiaren definizio falta hauteman du, eta, bere aburuz, horrek helburua bete den egiaztatzea oztopatzen du. Kasu honetan ere, adierazpen horrekin bat etortzea zaila da, espediente osoa aztertu eta horren garapenean Arabako Foru Aldundiak bata bestearen atzean gauzatu dituen jardunei erreparatzen badiegu.

Hasieran, 300.000 euroko gastua baimendu zen, 2006ko maiatzaren 16an onartu zen Diputatuen Kontseiluko hitzarmena betez. Hasieran baimena eman arren, azkenean soilik onartu zitzaion onuradunari 240 mila euro kobratzeko eskubidea, egindako jardunei eta izandako gastuei buruz aurkeztutako justifikazioaren zioz.

Hau da, Arabako Foru Aldundiak justifikazioaren helburua bete zela ikusi ahal izan zuen, baita sozietate onuradunak egindako gastua ere.¹⁹

- *Guztira 2.648 mila euroko zenbatekoarekin (konpromiso kredituetarako 300.000 euro barne) emandako bost dirulaguntzen kasuan, diruz lagundutako erakunde bakoitzarentzat hitzarmena formalizatu da. Bada, horietan ez da inon jaso Jarraipen Batzordea eratu denik, nahiz eta hitzarmen horietako klausuletan eratuko dela adierazi den (D akatsa).*

¹⁹ Hitzarmenean aurreikusitako ekintzak orokorrak dira eta ez da ekintza bakoitzeko aurrekonturik zehazten; honenbestez, ezin egiaztatu daiteke aurkeztutako justifikagiriak hitzarmenean barne hartutako jarduerekin loturik daudela. Aurreko kasu batean bezalaxe, HKEEK gogorarazten du gardentasunak jokamolde publiko orotan oinarritzko printzipio izan behar duela.



ALEGAZIOA

Eragozpenak izan ohi dira lankidetzaz hitzarmen batzuetan ezarritako jarraipen batzordeak eratzeko, baina, hala ere, sail eskudunaren ordezkariak eta dagozkien helburuak osatzen dituzten jardunen kontrol eta jarraipenarako aztertutako dirulaguntza jaso duen sozietatearen ordezkariak hainbat aldiz bildu dira.

4.3 Araudiari lotutako dirulaguntzak:

- *Hamabi dirulaguntza ildori buruzko zortzi oinarri araupetzailatan (guztirako zenbatekoa 4.097 mila euro), eskaerak baloratzeko irizpide batzuk orokorrak dira (B1 akatsa). Guztira 799 mila euroko zenbatekoa duten dirulaguntza hauetako bitan ez ziren barne irizpideak ezarri. Hala ere, txosten teknikoek aplikatutako irizpide bakoitzaren balorazioa arrazoitzen dute. Eta beste zortzietan, 2.707 mila euroko zenbatekodunak, txostenek ez dituzte arrazonamendu egokiak (B2 akatsa). Azken inguruabarra garrantzirik gabekoa da 1.957 mila euroko zazpi dirulaguntza ildotan, ez baita inoiz laguntza ukatzen aurrekontu mugak direla eta.*

ALEGAZIOA

Ohar hau lehenagoko 3.3 eta 3.4 epigrafeetan idatzitakoen antzekoa da, hots, kontrataziorako espediente batzuetan eskaintzak baloratzeko ezarri diren irizpideei buruzko epigrafe horietan.

Dagozkion alegazioetan adierazi bezala, aztertutako deialdiek eskaerak baloratzeko irizpideak jasotzen dituzte. Eta objektiboak izan behar duten arren, nolabaiteko abstrakzioa izan behar dute eta baloraziorako eta interpretaziorako lan teknikoa behar dute, kontua ez baita matematikako formulak aplikatzea soilik.

Bestalde, kasu guztietan, laguntzak emateko proposamena arrazoitzen duten txosten teknikoak daude, betiere kasu bakoitzari dagokion irizpideekin bat.

4.4 Dirulaguntzen justifikazioak: 2006ko ekitaldian emandako dirulaguntza hauen justifikazioan akatsak aurkitu dira:

- *Emandako hogeita hiru dirulaguntzen kasuan, 2006 urtean 5.726 mila euroko gastua izan dutenak, honakoak aurkeztu dira gastuen justifikazio gisa: ekintzen memoriak, konpulsatutako fakturen fotokopiak, benetan egindako gastuen adierazgarri diren agiririk ez duten fakturen zerrendak, auditatu gabeko egoera finantzarioei buruzkoak. Alabaina, dokumentu horiek ez datoz bat indarrean dagoen araudiarekin (C1 akatsa).*
- *Guztira 936 mila euroko zenbatekoa izan duten lau dirulaguntzen kasuan, justifikazioa hitzarmenean emandako epea baino beranduago eman da (hilabetetik 5 hilabetera). Guztira 957 mila euroko beste dirulaguntza biren kasuan, dirulaguntza emateko hitzarmenetan adostutako epea amaitu eta gero gauzatze eta justifikazio epea luzatu da. Emandako beste bitan, 1500 mila eurokoak guztira, ez da beharrezko dokumentazioa*



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

aurkeztu lanak ez direlako 2007ko abenduaren 31n amaitu. Horren justifikazioa 2006ko abenduaren 31rako aurreikusita zegoen (C2 akatsa).

- *Laguntzak jasoko dituen onuradunak aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, dirulaguntzen araudi berria askoz zorrotzagoa da. Horrela, 30.000 eurotik gorako lanetan eta 12.000 eurotik gorako hornikuntza eta zerbitzuetan hautatzen den kontratista justifikatzeko eskatzen da. Justifikazioetan lehenago aipatutako zenbatekoak baino altuagoak diren erosketak egin dira, baina ez da eskatu hautatutako kontratista justifikatzeko (C3 akatsa). Halaber, 261 mila euroko dirulaguntza izendun batean, dirulaguntzen Legearen 29. artikuluan ezarritako azpikontrataziorako muga gainditu da. (C4 akatsa).*

ALEGAZIOA

Aurreko ohar guztiak dirulaguntzak justifikatzerakoan gertatutako akatsen ingurukoak dira eta horren arrazoia dirulaguntzen araudi berria zorrotzagoa izatea da. Gainera, orduan ez ziren baldintzak guztiz jaso oinarri arautzaileetan, lankidetzaren hitzarmenetan edo ebazpenetan, horien bitartez gauzatzen zirelako baldintzak eta zehazten zirelako onuradunen betebeharrak. Horregatik, kasu batzuetan, justifikazioa oinarri arautzaile, lankidetzaren hitzarmen edo ebazpenetan ezarritako dokumentazioa aurkeztuz egin da (baina hori ez zettorren bat legezko betekizun berriekin). Kasu batzuetan ez zen halakorik eskatzen, hornitzaile eta azpikontratatzaileak aukeratzeari dagokiena esaterako.

Barne kontrolaren arduradun diren unitate organikoek jakinarazi zuten araudi berriaren eratorritako betebeharrak guztiak, formalak eta materialak, zorrotasun handiagorekin errespetatu behar zirela. Horrela, 2007. urtean zehar, aldaketa nabarmenak sartu ziren ekitaldi horretan onartutako tresna juridikoetan dirulaguntzak justifikatzeari dagokionez.

4.5 Garraio defizita estaltzeko dirulaguntzak: *2000 urteaz geroztik, AFAk dirulaguntzak ematen dizkie garraio publikoko enpresa emakidadunei, linea erregularretako garraioaren defizita estaltzeko. Izan ere, ez da hitzarmen arautzailearik egon 2007ko ekitaldiaren amaierara arte, maiatzaren 15ean Diputatuen Kontseiluak AFAk eta ALHko garraio erregularreko enpresa emakidadunek sinatu beharreko kontratu programaren testua onartu zuen arte, alegia. 2005eko ekitaldian, 2005eko abenduaren 13ko Foru Aginduaren bidez, lehenengoz onartu dira bidaiarien garraio erregularraren emakidak dituzten enpresen kostuen egitura eta haiek kalkulatzeko metodoa, bai eta, bidezkoa izanez gero, AFAk diruz lagundu beharreko zerbitzuak egitean gertatzen den defizit ekonomikoa ere. Metodologia hori zati batean aldatu da 2006ko martxoaren 29ko Foru Aginduaren bidez, horrek zeharkako kostuak gutxitu ditu (merkaturatzearen eta industri etekinen gastuak). 2006 urtean emandako dirulaguntzaren zenbatekoa 3.716 mila eurokoa izan da azkenean. 2006ko ekitaldian AFAk aurreko ekitaldietako dirulaguntzen inguruko jarduketaren batzuen berri eman dio fiskaltzari. Gaur egun auzia instruitzen ari da Gasteizko epaitegi batean.*

2006an emandako dirulaguntzak aztertu dira, 1.876 mila euroko 5 lineari dagozkienak, eta honako akatsak hauteman dira (E akatsa):



- *Saileko diputatuak ez du banakako ebazpenik eman dagokion dirulaguntza emateari eta ordaintzeari buruz, 77/2000 FDko 7.4 idatz zatian horrela ezarri arren. Horren ordez Garraio Zerbitzuko buruak eta Herrilan eta Garraio Saileko zuzendariak sinatutako txostena eman zuen.*
- *AFAk ez ditu onartu linea nagusiari aparteko zerbitzua eskaintzen dioten garraiolari laguntzaileentzat 318 mila euroko gastuak, aldi baterako kostuen egiturari buruzko foru aginduan jasotakoak. 2007an onartutako kontratu programaren erregulazioan sartu da zerbitzu hori.*
- *Aztertu diren lineetan ez da inon ageri onuradunak zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituenik (2008ko maiatzean onuradunek eguneratuta dituzte zerga betebeharrak).*
- *572 mila euroko dirulaguntza jaso duten eta aztertu diren hiru lineen kasuan, ez da inon jaso enpresa emakidadunak frogagiriak bidali dituenik, nahiz eta hori erabiltzen den dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko. Dirulaguntza horiek arautzen dituen 77/2000ko FDko 6. idatz zatian adierazita dago zehazki 1. edota 2. hiruhilekoetarako aurkeztu behar direnak. Beste linea batean, 562 mila euroko dirulaguntza zeukana, helarazitako informazioa ez dator bat 6. idatz zatian eskatzen denarekin.*
- *Bildutako diru sarrerak egiaztatzeko egoki den dokumentazio justifikatiboa ez da behin ere bidali.*

ALEGAZIOA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bere txostenean egindako oharren harira, beharrezkoa da honakoa nabarmentzea: Arabako Foru Aldundiak hainbat aldaketa sartu izan ditu dirulaguntza hauen kudeaketan, garraio publikoko enpresa emakidadunen linea erregularretako defizita estaltzea helburu baitzuten. Aurreko ekitaldietatik txosten honetan aztertutakora, aldaketa horiek guztiek laguntzen objetibotasun eta eraginkortasun maila eta efizientzia ahal bezain beste ugaltzea izan dute xede. Horrela, 2006an, kostuen egitura eta horiek kalkulatzeko metodologiaren arauak aldatu ziren eta kostuen zati bat murriztea lortu zen. Diputatuen Kontseiluan AFA eta ALHko garraio erregularraren enpresa emakidadun direnen arteko kontratu programak onartu ziren 2007an zehar, eta horrek garrantzi handiagoko aldaketa ekarri dio ereduari. Horren bidez, zehaztasun handiagoz arautzen dira bakoitzari dagozkion ustiaketa defizita kalkulatzeko beharrezko elementuak eta, ondorioz, hautemandako gabeziak osatzeko emakidadun enpresei emandako laguntzak.

Hala ere, ohar jakin batzuei buruz zehaztapenak egin behar dira:

- Hala da, eskudun saileko diputatuak ez du banakako ebazpenik eman dagokion dirulaguntza eman eta ordaintzeari buruz, 77/2000 Foru Dekretuko 7. 4 idatz zatian ezarri ez bezala. Hau gertatu da: dirulaguntzak eman eta ordaintzeko eskudun organoak kalkulu metodologia orokorra onartzearen alde egin zuen, kasu guztietan aplikagarria baita, eta nahikotzat eman zuen unitate organikoko arduradunak eta eskudun zuzendaritzak egindako txostena ondorengo kalkularen bermea izango zela. Hots, banakako ebazpenak



eman ordez metodologia orokorra hautatu eta dagozkien baimendutako arduradunen txostenen bidez gauzatu nahi zuen.

- “Bildutako diru sarrerak egiaztatzeko egoki den frogagiririk ez da ere bidali” delako adierazpena ezin da huts-hutsean onartu, dirulaguntza jasotzen zuten garraio lineen emakidadunek idatzita bidaltzen baitzuten informazio hori (saldutako txartelen zioz jasotako sarreraren zerrenda).²⁰

4.6 *Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko, Inbertsioen Plan Bereziko eta Lurpeko Azpiegituretarako Plan Bereziko dirulaguntzak (14/1997 FA eta 49/2003 FD). Ondokoa nabarmendu behar da:*

- *2006ko aurrekontuak gauzatzeari buruzko martxoaren 8ko 2/2006 FAren 15. artikulua bidez, Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko programari gehitutako kredituetan ematen diren bajak gaitzea dago. Halaber, 14/1997 FAK aipatutako planaren likidazioa jasotzen du; hau da, behin betiko zenbatekoaren kalkulua jasotzen du AFak eskuragarri dituen benetako baliabideak ezagutu eta gero. Likidazioa positiboa bada, hurrengo ekitaldiko aurrekontuan eransten da. Aurreko horren guztiaren ondorioz, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren hasierako 12.590 mila euroko zenbatekoari, 2006 ekitaldiko aurrekontuetan jasotako 22.918 mila euroak gehitu zaizkio ekitaldian zehar: planeko bajetatik bideratutako kredituei dagozkien 21.427 mila euro, 2005 urteko likidaziotik datozen 431 mila euro eta 1.060 mila euro aurrekontuan sartu baina erabili ez direnetatik. 2006 urteko betearazte kopuruak honakoak dira: aurrekonturako 35.455 mila euro erregistratuta eta 3.466 mila euro aintzatetsitako betebeharrarako. Goikoak eta hauek alderatuta ikus daiteke dirulaguntzak gastu antolaketa fasea abian denean ematen direla, obra proiektuak gutxi garatuta daudenean. Ondorioz, betearaztea txikia eta hurrengo ekitaldira erantsitakoa gero eta handiagoa da.*

²⁰ Aztertutako kasuetan enpresa emakidadunek igorritako sarreraren dokumentazioa kasu batzuetan sarreraren zerrendetara mugatzen da, beste batzuetan gutzira jasotako sarrerak adierazten dituzten txostenetara eta zerbitzu bakoitzeko bidaiariaren zerrendetara.



ALEGAZIOA

Egia da betearaztea txikia izaten dela aurrekontuetako zenbatekoekin eta arauak ezartzen dituzten kreditu habilitazio eta txertatzeekin alderatuta. Araudian jasota dauden ekintzak direnez, guztiz bideragarria da horiek gauzatzea. Betearaztea txikia da arrazoi honengatik: gastua egiteko unean dagoen kontabilitate egoeraren, toki erakundeei emandako dirulaguntzak onartzeak eraginda, eta aipatutako dirulaguntzak ordaintzeko unearen arteko desfasea ematen delako. Izan ere, ordainketa ez da egiten erakundeek egindako gastua justifikatu arte.

Desfasea hainbat faktorek eragiten dute, besteak beste:

- Kudeaketa, kontratazio eta dirulaguntzei buruzko araudi zabala bete beharra; araudi horretan, obren izapidetze eta burutzapen prozesua atzeratzen duten baldintzak eta epeak ezartzen dira.
- Obra batzuen ezaugarriek, bolumenak eta handitasunak obra gauzatzeko epe luzeak eskatzen dituzte. Obraren berezko izaerak ezuste ugari eragiten ditu askotan eta horiek berandutzea dakarte beti (askotan oso luzeak).
- Obra sustatzen duten Administrazio Batzordeek dituzten zailtasunak, berezkoak ez zaizkien diruz lagundutako ekintzak burutu behar dituztenean.
- Dirulaguntzak araupetzen dituen araudia zehatza da (14/1997 Araua, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana eta dirulaguntzak emateko Foru Aginduak arautzen dituena. Agindu horietan erregulatzen dira dirulaguntzak hartzeko beharrezkoak diren betekizun eta baldintzak). Arau honen izaera murriztaileak eta ezartzen diren baldintza eta epe guztiek, askotan, ezarritako baldintzak beranduago betetzea dakarte eta, ondorioz, dirulaguntzak beranduago ordaintzea.
- *2006 ekitaldian guztira 4.619 mila eurotan hautatutako bederatzi espedienteak aztertu ondoren eta aurreko urteetan emandako 2.302 mila euroko lau dirulaguntzen jarraipena egin ondoren, honakoa nabarmendu nahi dugu:*
 - *Hiru espedienteren kasuan, 2.275 mila euroko zenbatekoa dutenak, proiektuarekin batera doan administrazio dokumentazioa berandu aurkeztu da (2 eta 8 hilabete artean). Gainera, horietako bi espedientetan (2.110 mila eurokoak) dirulaguntza emateko epea agortu eta gero aurkeztu da betearazpen proiektua (3 eta 8 hilabete artean).*

ALEGAZIOA

05/216 espedientearen kasuan, atzerapena auzotar batek aurkeztutako erreklamaziogatik eman zen, aurkeztutako dokumentu teknikoa aldatzea eskatu baitzuen. Toki erakundeak aholkularitza juridikoa eskatu eta txostena hilabete batzuk beranduago eman zen. Txostena ikusita, toki erakundeak bilkura egin eta partikularraren eskaria atzera bota zuen. Horri



gehitu behar zaio ez zuela betearazpenerako udal baimenik eskuratu, aurkezpena egiteko epea bukatu eta zortzi hilabete igaro arte.

Proiektuak aurkezteko ematen diren atzerapenei dagokienez, adierazi beharra dago, benetako egoeretan, Foru Planaren Zerbitzuari aurkezten zaiola proiektua lehenengo. Bertan idazleari beharrezko azalpenak ematen dizkiote, oharrak eta zuzenketak, gerora zuzentasun tekniko eta arrazionaltasun ekonomikoko betekizunak bete daitezzen. Akatsak zuzendu eta konpondu ondoren, proiektua AFari eman zitzaion eta sarrera erregistratu zen. Jardunbide honek proiektuen aurkezpen “ofiziala” atzeratzen du.

Obra motaren arabera, baliteke toki erakundeak proiektua esku artean izan arte behar dituen baimen eta lizentzien berri ez izatea, horregatik proiektuaren aurkezpena berandutzeak baimenen berandutzea dakar. Hori gertatzen da 06/242 espedienteetan.

- *Guztira 233 mila euroko hiru espedienteetan, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren konturako dirulaguntzak eman dira obrak adjudikatu ostean; baina eskabidean agertzen den data obrak egiten hasi baino lehenagokoa da.*

ALEGAZIOA

06/308, 06/050 eta 06/051 espedienteetan, obra jakin batzuk egiteko asmoz toki erakundeekin sinatu diren lankidetzak hitzarmenen bidez emandako dirulaguntzak jasotzen dira.

Aipatutako hitzarmenak sinatzea onartzeko Diputatuen Kontseiluko erabakian azpimarratu egiten da kasu horiek bereziak direla, horien zenbatekoa, xedea eta betebeharrak ezarri beharra kontuan hartuta; kanpoan geratuko dira, aldiz, lehia eta publizitatearen printzipioak betetzen dituzten dirulaguntzak, xedearen berezitasuna aintzat hartuta.

Erabaki horretan ezarri da, gainera, kasu bakoitzean adostutako zenbatekoak ordaindu egin behar direla, Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek oniritzia eman ostean eta zerbitzu horiek obra egin izana frogatzen duten agiriak jaso, egiaztatu eta onartu ostean. Hori da aplikatu beharreko baldintza bakarra. Gastua hitzartutako zenbatekoetan justifikatu denez, hitzarmenetan ezarritakoa bete da eta, ondorioz, gastuak justifikatu eta gero ordainketa egin da.

II.A.5 LANGILEEN GASTUAK

5.1 Kontratazioa: *Lan burtsak kudeatzeko sistemak ez du ematen aukerarik AFaren kontratazioetan a posteriori egiaztatze burtsetako hurrenkera errespetatu denez.*

Lan burtsen kudeaketa a posteriori egiaztatzea ahalbidetzen duen sistema ezarri behar litzateke.



ALEGAZIOA

Programako bitarteko funtzionarioen kontratazio guztiak jakinarazten zaizkie ukitutako sailei eta Arabako Foru Aldundiko Langileen Batzordean ordezkaturata dauden talde sindikalei, kudeaketaren jarraipena egin ahal izateko eta aplikatzeko arautegia betetzen den ziurtatzeko, nahiz eta interesatuek kudeaketa hori ere kontrola dezaketen. 2006. urtean eta 2007 eta 2008 urteetan zehar kontrol hori sendotu egin zen Arabako Foru Aldundiak hartutako neurrien bitartez. Neurri horietako bat da, adibidez, indarrean dauden lan poltsen egoera eguneratuari buruz hileroko argitalpena ateratzea, iragarki tauletan nahiz web orriaren barruko lan publikoko atalean. Ildo honetatik, lan burtsen kudeaketa okerra dela eta ez da aurkeztu erreklamaziorik ez errekurtsorik izendapenen administrazio ebazpenen aurka.

B GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA (GOFE)

II.B.1 KONTRATAZIOA (Ikus B.5 Eranskina)

1.1 Kontzeptu homogeneoka berezita kontratu txikiak egiteko ezartzen den urteko gastuaren muga gainditzen denean eta aurreikuspenen arabera urteko gastua aldakorra izan daitekeenean, ondasun, zerbitzu eta hornikuntzak eskuratzean aleko prezioen arabera lizitazioak edo eskaintzen eskabideak (dagokiona) egin beharko lirakekeela uste dugu. Hona gastu horien kontzeptuak eta zenbatekoak:

KONTZEPTUA	Euroak milakoetan		
	Enpresa kop.	Faktura zk.	Zenbatekoa
PVCaren hornikuntza (Indesa lantegiak)	2	76	184
Termoformatuak (Indesa lantegiak)	1	51	135
Moldeak (Indesa lantegiak)	1	15	47
Eserlekuen sendotzea (Indesa lantegiak)	1	12	52
Elikagaien hornikuntza	3	307	115
Etzetresna elektriko txikien konponketa	1	119	35
Sukaldeko eta jantoki tresnen hornikuntza	2	180	53
Zeramika eta eskulanen tailer zerbitzuak	1	83	67
Errehabilitaziorako mediku zerbitzua	1	7	26
Animazio zerbitzuak	1	35	28
Kopien eta argitalpenen zerbitzuak	1	84	24
Lanerako jantzien hornikuntza	1	108	20
Podologia zerbitzua	1	79	17
Telelaguntzako ekipoen hornikuntza	1	1	20
Altzarien hornikuntza	1	35	30

ALEGAZIOA

Goiko zerrendako lehenengo lau kontzeptuak INDESA lantegiek hornitu dituzte. Blisterrari eta erretraktilari lotutako eragiketetarako plastikozko produktuak eskuratzeko behar izan da zenbateko handiena. Petroliotik eratorritako plastikozko produktuen eskuraketak prezioetan aldaketa handiak izaten dituzte; izan ere, hiru hornitzaileekin batera baloratzen



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

da etengabe kalitatearen eta prezioaren arteko erlazioa eta balorazio horren arabera erosten da bata edo bestea, aurreko binomioa aintzat hartuta betiere. Bezeroek produktuak paketatzeari buruz egiten dituzten eskakizunen ondorioz, plastikoaren kalitatea mantendu behar da; baina hornitzaileari prezioa mantendu behar izanez gero kalitate hori gutxitu egingo litzateke. Gainera, askotan, bezeroak homologatuta dituen kalitateak eta materialak eskatzen ditu; orduan, bezeroak homologatuta duen hornitzaile bakarrari erosi behar diogu homologatutako produktu hori.

Elikagaien hornikuntzari dagokionez, GOFEk hasieratik bertatik aplikatu du elikagaien hornitzaile bat baino gehiago izateko sistema. Kontsumo orokorragoa duten gai ezberdinak hornitzeko kontratuak lizitazio publiko bidez adjudikatu ditu, hornikuntza osoa erakunde batean edo bitan zentralizatzeko sistema aplikatu beharrean; esperientziaz dakigu azken sistema hau askoz errazagoa izan arren janariaren kalitateari begira emaitzak txarragoak izaten direla, batez ere kontuan hartuta janari horiek zein erabiltzaileri eskainiko zaien (gehienak besteren beharra duten adinekoak) eta GOFeko sukaldariak dituzten 17 zentrotarako direla.

2005. urtean, elikagai ezberdinen (245 elikagai ezberdin) hornikuntza adjudikatzeko lehiaketa egin zen; 24 erakunderi egin zitzaizkien kontratuak eta, aurreikuspenen arabera, urtean 721.310'89 euro adjudikatuko ziren (BEZ barne). Era berean, sinatutako kontratuak luzatu ezin zirela ikusita 2006ko ekitaldian zehar beste 81 produkturen hornikuntza adjudikatu zitzairen enpresa ezberdinei; aurreikuspenen arabera, urtean 322.530,00 euro adjudikatuko ziren (BEZ barne). Azkenik, arrazoi beragatik, 2007. urtean kontsumo orokorreko beste elikagai batzuen hornikuntza lizitatu zen; aurreikuspenen arabera, urtean 260.072,00 euro (BEZ barne).

Sukaldeetan elikagai ezberdinak erabiltzen dira, merkatuan produktu ezberdinak eta askotarikoak izaten dira, horietan berrikuntzak ematen dira eta merkatuan produktu berriak ere agertzen dira; hori guztia kontuan hartuta eta aintzat hartuz batzuetan merkatuaren egoeraren arabera produktu batzuen hornitzeko kontratuak ez direla luzatzen, ez da harrizkoa horietako batzuk lizitazio publiko bidez ez adjudikatzea.

Gainera, lizitatzen ez diren produktuak oso askotarikoak dira eta gehienek ez dute kontsumo handirik (postreak eta saltsak egiteko gehigarriak, prestatuta datozen produktuak, etab.); une jakinetan erabiltzen dira, jaiegunetan, adibidez. Produktu horiek laster egingo den lizitazio berrian sartzeari pentsatu da, baina kontsumitzen den produktu mota guztiak bateratu eta mugatzen saiatuz.

Aipatutako gainerako kontzeptuei dagokienez, zerbitzu berezien eta zenbateko txikidun hornikuntzak eta prestazioak direla esan behar da. Zaila da mota horretakoak lizitazio arrunt batean sartzeari, GOFEk jarduten duen zentroetako beharrian berezien ondoriozkoak izaten direlako.

1.4 Familiaren gizarte eta hezkuntza esparruetan esku hartzeko zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratazioari buruzko espedientean (guztira 244 mila euroko gastua 2006ko



ekitaldian), adjudikaziorako txosten teknikoak ez du justifikatzen benetan emandako puntuazioa (B1 akatsa).

ALEGAZIOA

Aipatutako txosten teknikoan AKBAetan jasotako irizpideak baloratzen dira: aurkeztutako proiektuaren kalitatea, proiektu osoan ezarritako helburuei egokitzen zaien kontuan hartuz; lanerako metodologia; programan garatu beharreko jarduerak; barneko edo GOFeko koordinaziorako sistemak; proiektuaren egokitzapena, printzipio psikologikoak, sozialak eta hezkuntzakoak kontuan hartuta; Adingabearen eta Familiaren Arloaren jarduteko gida, eta proiektua gauzatzeko aurkezten diren hobekuntzak. Lehenbizi, hiru erakunde lizitatzaileri aipatutako faktore horietako bakoitzagatik eman zaien puntua azaltzen da eta gero puntu horiek zergatik eman diren arrazoitzen da.

1.5 GOFEn menpeko zentroetarako garbiketa zerbitzua kontratatze espedientean (guztira 283 mila eurotan adjudikatutakoa), kontratua sinatu ostean eta zerbitzua ematen hasi baino lehen jarri da behin betiko bermea (C1 akatsa).

ALEGAZIOA

GOFEn jardunaren ondorioz egin da ohar hori. Izan ere, GOFek adjudikazioaren ebazpenaren jakinarazpena bidaltzen zion adjudikaziodunari eta bertan ezartzen zen adjudikaziodunak kontratua formalizatzeko administrazio agiriarekin batera (data bera jarrita) fidantza jarri behar zuela, nahiz eta kontratua fidantza jarri ostean sinatzen den beti, hau da, betebeharrak bete dela egiaztatu ostean.

II.B.2 HITZARMENAK

2.1 Gizarte zerbitzuetako hitzarmenak: Erakundeak egoitza arreta emateko eta eguneko zentroetako zerbitzuen barruan prestazio jakin batzuk finantzatzen ditu; horretarako, hitzarmenak sinatzen ditu toki erakundeekin, enpresa pribatuekin, elkarteekin eta bestelako erakundeekin, hurrengo arauak betez:

- 5/1996 Legea, gizarte zerbitzuena.
- 40/1998 Dekretua, Eusko Jaurlaritzarena, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzeko dena. Horren bidez, laguntza zerbitzuak eman nahi dituzten erakundeek homologazioa lortu behar dute.
- 41/1998 Dekretua, Eusko Jaurlaritzarena, hirugarren adinekoentzako egoitzako gizarte zerbitzuei buruzkoa. 125/2005 Dekretuak eta 195/2006 Dekretuak aldatu dute.
- 202/2000 Dekretua, Eusko Jaurlaritzarena, mendekotasuna duten adinekoen eguneko zentroei buruzkoa.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 64/2004 Dekretua, Eusko Jaurlaritzarena, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen eta arlo horretako profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna onartu duena.

Jarraian, kontzeptu esanguratsuenen, eguneko zentroen eta egoitzen gastuak 2006ko ekitaldian (aurrekoaren aldean) izan duen bilakaera azaltzen da:

GIZARTE ZERBITZUEN HITZARMENAK	Euroak milakoetan					
	EGUNEKO ZENTROAK		EGOITZAK		GUZTIRA	
ZERBITZUA EMATEN DUTEN ERAKUNDEAK	2005	2006	2005	2006	2005	2006
Toki erakundeak	798	841	1.173	1.226	1.971	2.067
Elkarteak	267	248	4.647	5.631	4.914	5.879
Erakunde erlijiosoak	51	74	1.513	1.840	1.564	1.914
Bestelakoak	-	-	165	171	165	171
GUZTIRA	1.116	1.163	7.498	8.868	8.614	10.031

GOFek irabazteko asmorik ez duten erakunde publiko eta pribatu ezberdinekin formalizatu dituen lankidetzak hitzarmenak berrikusi dira, eta ikusi da 2006ko ekitaldian zerbitzuak areagotu egin direla plaza kopurua, profesional kopurua eta laguntzeko programak gehitu direlako.

Gainera, hitzarmena noiz luzatzen den gorabehera, erakundeek aurrekontuan zainpetutako zenbatekoaren % 90eko aurrerakina jasotzen dute hileroko, eta lehen hitzarmenetan ezarri da ordainketa hitzarmena sinatzen den egunean egingo dela, hots, jasotako aurrerakinak erregularizatzen diren egunean.

ALEGAZIOA

Hileko aurrerakinei dagokienez, 2008. urteaz gero ezin dira horrela hartu; izan ere, Administrazio Kontseiluak 2007ko abenduaren 28an hartutako erabakiaren bidez onartu ziren ohar honetan aipatzen diren lankidetzak hitzarmenen luzapenak. Baina, lehenbizi, gastua baimendu eta xedatzeko kontabilitateko agiriak izapidetu ziren. Erabaki berean, gainera, bertan jasotako zenbatekoaren hamabirenaren % 90eko hileko zenbatekoa kontura ordaintzeko baimena eman zen, harik eta luzatutako aldiaren zehar aplikatu beharreko baldintza ekonomikoak behin betiko zehaztu arte, hau da, egindako ordainketa guztien zenbatekoak arautzen diren egunera arte.

C. GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA (GFE)

II.C.1 ERAKUNDEAREN ANTOLAKETA

1.2 Erakundearen zuzendari kudeatzaileak Administrazio Kontseiluaren lehendakariari dagozkion ahalmenak eta eginkizun orokorrak betetzen ditu, azken honen eskuordetzan emanak. Eskuordetza horrek ondorioak izan ditzan ALHAOn argitaratu behar izan zen, GFEren antolaketa, erregimen eta funtzionamenduaren erregelamendua onartu duen



urriaren 18ko 1701/1988 Foru Dekretuko 9. artikulua 3. paragrafoan ezarritakoa betez. Beraz, 3.1. puntuan aztertu den Udalekuak programako jardueren zerbitzua kontratazeko espedientean horren ondoriozko akatsa antzeman da.

ALEGAZIOA

Akatsa 2007an konpondu da. 2007ko azaroaren 23an argitaratu zen ALHAOn GFEren zuzendari kudeatzailearen aldeko eskumenen ordezkariak.

II.C.3 KONTRATAZIOA

2006ko adjudikazioak (Ikus C.3 eranskina)

3.1 Udalekuak 2006 programako ekintzen zerbitzuaren kontratazioaren espedientean (205 mila eurotan adjudikatu da), kontratazioa kudeatzaileak egin du, baina eskumena Administrazio Kontseiluko lehendakariak dauka (B2 akatsa). Gainera, zerbitzua ematen hasi baino lehen prezioaren % 45 aurreratu da, arrazoiak eman eta hori justifikatzen duen txostena aurkeztu gabe (C1 akatsa).

ALEGAZIOA

Kontseiluko lehendakariaren ahalmenak zuzendari kudeatzaileari emateari buruzko aurreko alegaziora jo behar dugu kasu honetan, kontratazio hau egiteko behar bezala ulertu zelako une hartan.

Kontratuaren prezioa aurreratzeari dagokionez, kontuan hartu behar da kontratuaren xedea zein zen ikustean administrazioko kontratu berezi moduan sailkatu zela. Hain zuzen, Administrazio Klausulen Agiriko hirugarren klausulan berariaz azaldu da Gazteriaren Foru Erakundeak kontrako ordainketak alde aurretik eman zitzakeela, betiere Erakundearen Zuzendaritzaren araberrako egokitze irizpidearen baldintzapean.²¹

3.2 Carlos Abaitua aterpetxean janariak emateko zerbitzuaren espedientean (92 mila eurotan adjudikatutakoa), adjudikatzeko irizpideen barruan, besteak beste enpresaren egitura eta esperientzia baloratu dira. Bada, lizitazioan alderdi horien egiaztatu behar dira eta ezin dira adjudikaziorako aintzat hartu (A1 akatsa). Gainera, adjudikazioa ez da ALHAOn argitaratu (B3 akatsa).

ALEGAZIOA

Aurreko oharri lotuta, AKBaren XIII. klausula hitzez hitz jaso behar dugu:

Esleitzeko oinarriko irizpideak:

²¹ HKEE honek ez du ordainketak aurreratu ahal izateko arrazoiak agiri bidezko euskarririk.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Menuen kalitatea, kopurua eta aniztasuna: 40 puntu
- Zerbitzuaren kostua: 35 puntu
- Zerbitzuaren antolaketa eta enpresari laguntzea: 25 puntu

Horietako bat ere ez dago enpresaren esperientziari edo egiturari lotuta. Irizpide horien bidez eskaintza ezberdinak balioztatu daitezke. HAKLTBeko 86. artikuluan lehiaketa adjudikatzeko irizpide moduan, besteak beste, hauek ezartzen ditu: kalitatea, balio teknikoa, ezaugarri funtzionalak, laguntza teknikoa eta antzeko beste batzuk. Zalantzarik gabe, irizpide horiek aipatutako lehiaketetan eskatzen diren baloraziorako irizpideen isla dira.²²

3.3 *Udalekuak 2006 programako ekintzen zerbitzuaren kontratazioaren espedientean eta Carlos Abaitua aterpetxean janariak emateko zerbitzuaren espedientean (205 eta 92 mila eurotan adjudikatutakoak, hurrenez hurren), adjudikazio proposamenerako oinarritzat hartu diren txosten teknikoetan ez dira behar bezala arrazoitzen emandako puntuak (B1 akatsa).*

ALEGAZIOA

Ohar honen xede diren espedienteetan jasotako txosten teknikoak gai horretan eskudun diren teknikariek egin dituzte, euren gaitasun profesionala erabilita; eta txosten horietan labor arrazoitzen da lizitatzailer bakoitzari emandako balorazioa, Administrazio Klausulen Agirian jasotako adjudikaziorako irizpideak betez. Baina Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren ustez ez dira behar bezala arrazoitu lizitatzailer bakoitzari emandako puntuak.

Ohar hori oso subjektiboa dela alde batera utzita, paradoxikoa da bai motibazio praktika soila zein kontrakoa zentsuratu dela ikustea, batez ere aurreko oharretan zalantzan jartzen denean adjudikazioari buruzko txosten teknikoetan irizpide horiek eta baloratzeko modu hori zehaztu beharra.²³

3.4 *Arabako Gazteen Informazio eta Dokumentazioko Lurralde Zentroaren eduki informatikoa mantendu eta zabaltzeko zerbitzuaren kontratuaren luzapenean (215 mila euro), zerbitzua ematen hasi baino lehen onartu eta formalizatu da luzatzeko kontratua (C2 akatsa).*

²² Epaitegiak ez die erreferentziarik egiten APKLren irizpideei, baizik eta esleipenaren txosten teknikoan erabilitako irizpideei.

²³ Epaitegi hau ez da kontraesanetan erori: Lege hauste honetan adierazi da txosten teknikoek ez dituztela behar bezala arrazoitzen emandako puntuaketak eta beste batzuetan esaten dena da txosten teknikoetan AKPPetan zehaztu gabeko irizpideak zehazten direla.



ALEGAZIOA

Oharrean azaldutakoa egia da, baina adjudikazioa duen enpresak zerbitzua ematen hasi baino lehen esan zuen luzapena onartuko zuela. 2005eko abenduaren 1ean erregistratu zen idazkiaren bidez onartu zen GFEk aurretik bidalitako Arabako Gazteen Informazio eta Dokumentazioko Lurralde Zentroaren eduki informatikoa mantendu eta zabaltzeko zerbitzua (2006-2007 aldia) luzatzeko proposamena.

D.- FORU ENPRESA PUBLIKOAK

II.D.1 AURREKONTUAREN ETA KONTABILITATEAREN INGURUAN

1.1 Naturgolf, SA: 2007. urtera arte, sozietatearen finantza egoeretan ez dira erregistratu 2002. urtean Lagrángo Udalarekin golf zelai bat handitzeko trukaturako lurrak.

ALEGAZIOA

609,88 euroko balioa duten lurrak, truke bidez lortutakoak, 2006ko ekitaldian ez dira kontabilitateko eran jaso, kontabilitatearen zuhurtziaren printzipioa aplikatuz, Jabetza Erregistroan ez zirelako amaitutzat eman izapideak.

Erregistroan trukearen itzulketa eragin zezaketen arazoak sor zitezkeelako, kontabilitatearen zuhurtziaren printzipio bera aplikatuta, hurrengo erabakia hartu zen: ondasun horiek ez ziren NATURGOLF, S.A. ren izenean kontabilizatuko 2007ko ekitaldian.

Azken ekitaldian kontabilizatu da balio hori, Jabetza Erregistroan inskribatu ostean.

II.D.2 EROSKETAK ETA ZERBITZUAK: KONTRATAZIOA (Ikus D.5 Eranskina)

2.3 Lizitazio fasean aintzat hartu beharreko adjudikazio irizpideak: Sei sozietaterekin egindako hamabost kontratutan guztira 11.421 mila euro adjudikatu dira (Araba Garapen Agentzia, SA: zazpi kontratu, guztira 9.391 mila euro; Arabarri, SA: lau kontratu, guztira 681 mila euro; Naturgolf, SA: kontratu bakarra, guztira 300 mila euro; Arabako Kalkulu Gunea, SA: kontratu bakarra, guztira 664 mila euro; Arabako Lanak, SA: kontratu bakarra, guztira 108 mila euro eta Vías de Alava, SA: kontratu bakarra, guztira 277 mila euro). Lizitazio fasean eskaintzak onartzeko baldintza moduan hartu beharko liratekeen irizpideak baloratu dira adjudikaziorako (hala nola: baliabideak, lantaldearen gaitasuna, eskaintzetako betekizun formalen betetzea, egin diren antzeko lanak eta egingo diren lanen gaineko ezagutza). (B2 akatsa).

ALEGAZIOA

ARABA GARAPEN AGENTZIA, S.A. ren kasuan, "eskaintzak aurkezteko betekizun formalak betetzea" delakoa kontratu batzuk adjudikatzeko irizpide moduan jasotzen da; hala ere, aurkeztutako proposamenen baloraziorako txostenetan jasotakoaren arabera, horri ez zaio



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

haztopenik eman eta, horrela, kontzeptu horri ez zaio punturik eman.²⁴ Gainerako irizpideetarako emandako puntuazioari dagokionez, eta txostenetan jasotakoa kontuan hartuz, gehienez ere emango zen puntuazioa zehaztuta zegoen; hoberenari gehieneko puntuazioa eman zitzaion eta gainerakoei proportzioz zegokiena.

ARABAKO LANAK, S.A.ren kasuan, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak uste du Estadona eta Lopidana artean nekazaritzako bide bat egokitzeko obrak gauzatzeko espedientean adjudikatzeko irizpide moduan baloratu diren irizpide batzuk eskaintzak onartzeko lizitazioan hartu behar ziren kontuan. Zehazki, ondoren hitzez hitz jasotzen den irizpidez ari da:

"2. Kontratistak obraren burutzapenarekin duen konpromisoa: 0tik 50 puntura.

Atal hau baloratzeko, hurrengo alderdiak hartuko dira kontuan:

- Ordezkarri eta lantaldeei, makinei, teknologia modernoeri eta obrak gauzatzeko bitarteko osagarriei buruzko konpromisoak, horien egokitzapena obra proposatutako epean burutu dadin eta Obren Zuzendaritzak ezarri dituen lanerako erritmoetara egokitzea: 0tik 20 puntura.
- Kalitatea Bermatzeko Planaren aplikazioa eta edukia: 0tik 10 puntura.
- Lanerako formulak: 0tik 10 puntura.

Obraren berme epe luzeagoaren eskaintza: 0tik 10 puntura.

Irizpide hau baloratzeko, obraren urtebeteko berme epe orokorra luzatu den urte bakoitzeko bost puntu emango dira, eta ondoren puntuazioa linealki jaitsiko da; hau da, eskaintzan "Kontratuaren ezaugarrien taula-laburpena" urtebeteko berme epe orokorra luzatzen ez bada zero puntu emango dira".

VIAS DE ALAVA, S.A.ri dagokionez, ondoren hitzez hitz jasotzen diren irizpidez ari da:

"2. Proiektuaren eta obrako arazoaren gaineko ezagutza, memoria teknikoaren eta lanen plan eta metodologiaren bitartez frogatuta: 0tik 20 puntura.

3. Laguntza teknikoa emateko konpromisoa hartzen duten giza baliabideen kalitatea eta egokitasuna, langileen, horien tituluen eta curriculumen zerrenda eginez. Atal honetan, bereziki baloratuko da laguntza teknikoa emateko proposatzen diren langileek antzeko obretan duten esperientzia. 0tik 20 puntura.

4. Laguntza teknikoa emateko konpromisozat hartzen diren baliabide tekniko eta materialen kalitatea eta egokitasuna: 0tik 10 puntura."

Baliabideak, lantaldearen gaitasuna eta horren ezagutza aurrerako jasotako irizpideetan baloratzen dira. Horiek ez dira kaudimen teknikoa frogatzeko baldintza gisa hartzen, baizik eta enkantatzaileek lan zehatz honetarako proposatzen duten eraikuntza metodoa, hots,

24 Ez da irizpide hori aintzat hartu HKEEk azpimarratutako lege haustean.



bere plangintza, lan honi dagozkion bitarteko materialekin eta lan konpromiso pertsonalekin bat datorrela eta koherentea dela ziurtatzeko nahitaezko modu gisa. Onartzeko irizpide gisa kontratista sailkatuta egon beharrak (kaudimen teknikoa) ez du zerikusirik proposatutako lan programaz nahitaez egin beharreko balorazioarekin, hala bitarteko materialei dagokienez (adib., makineria zehatza, metaketak egiteko konpromisoak, etab.) nola giza bitartekoei dagokienez (lanaren fase desberdinetan adituak diren pertsonen konpromisoa, lanaren beharrak aintzat hartuta).²⁵ HAKLTBeko 86. artikuluan lehiaketa adjudikatzeko irizpide moduan, besteak beste, hauek ezarri dira: kalitatea, balio teknikoa, ezaugarri funtzionalak, laguntza teknikoa eta antzeko beste batzuk. Zalantzarik gabe, irizpide horiek aipatutako lehiaketetan eskatzen diren baloraziorako irizpideen isla dira.

2.4 Adjudikatzeko irizpideak: Naturgolf, SA sozietateak lanak burutzeko epea eta bideragarritasun teknikoa sartu ditu adjudikatzeko irizpide moduen 300 mila eurotan adjudikatu den lehiaketa batean; obra 2006ko abenduaren 31rako amaituta egon behar zela ezarri zuen gainera. Zuinetaren akta egin denetik 2006ko abenduaren 31ra bitarteko 16 eguneko epea ez da nahikoa izan, aurreikusitakoa baino 5 hilabete beranduago amaitu baita obra. (B3 akatsa).

ALEGAZIOA

Obrak burutzeko epe hain estua ematean, golf zelaiko aldagelak (obraren xedea) ahalik eta denbora laburrena utzi behar ziren itxita; bestela, zerbitzuen erabiltzaileek horren eragina jasan beharko zuten, abonua kobratuta izan arren.

Lehiaketara enpresa bat baino gehiago aurkeztu zen, eta denek hartu zuten obrak ezarritako epean burutzeko konpromisoa. Beti mantendu zen lehia askearen printzipioa, eta azkenean kontratua eskaintza merkeena aurkeztu zuen enpresari adjudikatu zitzaion. Gainera, lehiaketan parte hartu zuten enpresek ez zuten administrazio erreklamaziorik aurkeztu.

Dena den, adjudikazioa duen enpresari egotzi ezin zaizkion arrazoiak direla medio, obra ezarritako epean ezin zela egin azaldu zen.

2.5 Agirietan zehazten ez diren edota arrazoituta ez dauden irizpideak garatzen dituzten adjudikaziorako txosten teknikoak: 4 sozietaterekin guztira 7.715 mila eurotan adjudikatutako 8 kontratutan (Araba Garapen Agentzia, SAren hiru kontratu: 6.691 mila euro; Arabarri, SA sozietatearen hiru kontratu: 639 mila euro; Arabako Lanak, SAren kontratu bat: 108 mila euro; eta Vías de Álava, SAren kontratu bat: 277 mila euro), adjudikaziorako oinarri diren txosten teknikoetan, AKBAen edukiak garatzen dituzten edo emandako puntuazioa arrazoitu ez duten azpiirizpideak jasotzen dira. (B4 akatsa).

25 Idem 14. zk.



ALEGAZIOA

ARABAKO LANAK, S.A.ri dagokionez, Administrazio Klausulen Agirietan jasotako adjudikatzeko irizpideak betez baloratu ziren aurkeztutako eskaintzak txosten teknikoan. Alabaina, jarduera horri dagokion nahierakotasun teknikoa baliatuz eta horietan sartzeko moduko alderdien arabera interpretatu, garatu eta gauzatu ziren irizpideak.

ARABARRI sozietateak sustatutako lehiaketei dagozkien administrazio baldintzen agirietan, lanak adjudikatzeko irizpideak eta horietako bakoitzaren haztapena ezartzen dira. Kontratazio mahaia eratzen denean adostu eta zehazten dituzte horren kideek aurretik ezarritako irizpideetako bakoitzean baloratu beharreko alderdi zehatzak. Adjudikaziorako txostenetan, baldintzen agirietako haztapenari eta lizitatzailleetako bakoitzak lortutako puntuazioari egiten zaie aipamena. Informazio hau horietako bakoitzari jakinarazten zaio.

Oro har, ezin da ahaztu HAKLTBean (eta indarreko kontratuen araudian) ezarritakoaren arabera irizpideak objektiboak izan behar direla baina, era berean, nolabaiteko abstrakzioa izan behar dutela eta baloraziorako eta interpretaziorako lan teknikoa behar dutela (adib. kalitatea, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak). Kontua ez da formula matematikoak soilik aplikatzea.

2.6 Arabako Kalkulu Gunea, SA: 2006. urtean 2004an adjudikatutako zerbitzu informatikoen kontratua luzatu da, eta adjudikazio irizpideak enpresen gaitasun teknikoa eta lanbide gaitasuna eta sozietatearen berezitasunetara egokitzea izan ziren. Produktu edo zerbitzu jakin bat kontratatzeke homologatutako enpresak hautatu ondoren, hautatutako enpresak gonbidatu dira publizitaterik gabeko prozedura negoziatu batera. 2006ko ekitaldian, 883 mila euroko bost kontratu adjudikatzeko, kontratistak lehian onartzeko irizpideak erabili dira adjudikazio irizpide moduan. Banako kontratazioak egiten dituenen, sozietateak eskaintza eskatzen die hornitzaile homologatuei, eta berriro ere denek ezaugarriak baloratzen ditu (E akatsa).

ALEGAZIOA

Ohar horren gainean esan behar da, ARABAKO KALKULU GUNEA, SAK formula horren bidez egindako kontratazioetan bi fase ezberdin ematen direla:

- Homologazio fasean, AKGk gauzatzen duen jardueraren inguruko proiektuak garatu ahal izateko baldintzak edota gaitasunak dituzten enpresak hautatzen dira.
- Proiektuak prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzeko fasean, proiektua eskaintza abantailatsuena aurkezten duen enpresari adjudikatuko zaio; bestela, adjudikatu beharreko proiektuaren baldintza eta ezaugarri zehatzetara hobeto egokitzen den eskaintza aurkezten duen enpresari. Horregatik baloratu behar da fase honetan negoziarioaren eta erabili beharreko bitarteko eta tresnen ezagutzak zein kalitate duen, proiektua ahalik eta kalitate eta berme handienekin garatze aldera betiere.



2.7 Ondoren zehazten diren sozietateekin egindako kontratuen burutzapenean ez dira bete AKBAn ezarritako klausulak (C1 akatsa), hain zuzen ere:

Araba Garapen Agentzia, SA:

- *Bi kontratatutan (guztira 82 mila euro) ez dira luzapenak formalizatu.*

ALEGAZIOA

Oharrean bi kontratu aipatzen dira:

1.1. Aholkularitza juridikoa (arlotan zibila, merkataritzakoa eta kontrataziokoa)

2004ko uztailaren 9an sinatutako kontratuaren laugarren klausulan ezarri da zerbitzuen errentamendua “automatikoki luzatuko dela segidako urtekoetan, baina gehienez ere lau urtez”. Beraz, luzapenak idatziz formalizatu ez arren, kontratuaren itzalpean adostu ziren; izan ere, kontratuaren arabera, luzapenak automatikoki egiten direnean ez da beharrezkoa eransketan jasotzea.

2.2. Administrazio eta hirigintza esparruetako aholkularitza zerbitzuak

2004ko martxoaren 26an sinatutako kontratuaren bigarren hizpaketan ezarri da kontratua “urtero luzatzen dela ulertuko dela, kontratua sinatu duen alderdietako batek salatzen duenean izan ezik”. Alderdi batek ere ez du salaketarik egin; orduan, automatikoki lege ezarritako gehieneko epera arte luzatzen dela ulertu behar da.

Vías de Álava, SA:

- *Guztira 30.541 mila eurotan adjudikatutako kontratu bat berandu formalizatu da eta guztira 277 mila eurotan adjudikatutako beste batean ez da lanerako planik eskatu.*

ALEGAZIOA

Aipatutako bigarren kontratuan adjudikaziodunari ez zitzaion lanerako planik eskatu, eskaintzan giza baliabideen eta baliabide materialen gainean egindako proposamena onartu zitzaion.

Horren arrazoia ondokoa da: laguntza teknikoa obraren kontratu osagarria da eta, ondorioz, obra burutzapenaren erritmoen arabera aldatzen da giza baliabide eta baliabide material gehiago eskatu beharra. Obra Zuzendaritzak eskariaren arabera eskatzen du horiek egokitzeko. Horregatik, lanerako plana AKBAetan jaso arren ez da funtsezko agiria, eta laguntza teknikoetarako ez da oso erabilgarria.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Naturgolf, SA:

- *2006. urtean 833 mila euroko gastua izan duen kontratu batean ez da egiaztatu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direnik.*

ALEGAZIOA

2005eko ekitaldian golf zelaien mantenuari buruzko kontratua sinatu zen ***** enpresarekin. Bertan, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko agiria erantsi zen.

Hala ere, gero, kontratua 2006ko ekitaldira luzatu behar zenean administrazio sailean gertatu ziren gorabehera batzuen ondorioz agiri horiek ez ziren espedientean erantsita aurkeztu. Sozietateko kudeatzaileak ***** sozietatearen jardunen jarraipena egiten du eta oraingoan ere egin du, eta deskarguak Administrazio Kontseiluaren aurrean egin ditu.

Ikuskapenak egin ostean egiaztatu da zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela.

2007ko eta 2008ko ekitaldietako jardunei dagokienez, Naturgolf, S.A. sozietateak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzeko agiriak eskatu ditu.

Sozietate batzuk:

- *Arabarri, SAk 2006. urtean adjudikatutako bi espedientetan eta aurreko urteetan adjudikatutako beste hiru espedientetan (guztira 701 mila euro), horietariko bat Araba Garapen Agentzia, SAk adjudikatuta 387 mila eurotan, obren burutzapena atzeratu egin da baina ez da AKBAn ezarritako epeen aldaketarik onartu.*

ALEGAZIOA

Egia da ohar honetan azaltzen diren atzerapenak gertatu direla, baina sozietateek kasu guztietan aurkeztu dituzte atzerapen horiek eragin dituzten eta adjudikaziodunari egotzi ezin zaizkion arrazoiak eman direla frogatzen duten txosten teknikoak. Txosten horiek, izan ere, AKBAn ezarritako epeen aldaketak inplizituki onartzeko balio dutela uler daiteke. Logikoa denez, kontratua sinatu duten alderdiei aldaketa horien berri eman zaie, modu ez formalean izan arren; horrela, kontratuak behar bezala beteko direlako.

Ezin da ahaztu, bestalde, erakunde horiek zuzenbide pribatua dutela aginduzko eta, beraz, horien betebeharrak ez dira administrazio arloan bezain zorrotzak.

- *Bi sozietateren 368 mila euroko bi kontratutan (Naturgolf, SAren 300 mila euroko bat eta Arabako Lanak, SAren 68 mila euroko beste bat) bermea atzerapenez aurkeztu da.*



ALEGAZIOA

Legeak ez du behartzen, kontratazioetan, adjudikazioa duten enpresei fidantzak edo abalak eskatzera; aitzitik, foru sozietate publikoek agirietan borondatez jarri dute hori.

2.8 Naturgolf, SA: 2002ko abenduan Administrazio Kontseiluak ondokoa egiteko lehiaketaren deialdia onartu zuen: golf zelaietako irakaskuntza zerbitzuak bi profesional adjudikaziodunen zuzenean kudeatzea trukean sozietateari instalazioak erabiltzeagatiko kanona ordainduta. Ostera, zerbitzu horiek sozietatean egiten zituzten profesional euren jarraitzen dute irakasle lanean (kontratua 2002ko abenduaren 31n amaitu zitzaien), eta sozietateak ez du lehiaketarik deitu 2007ko ekitaldira arte.

ALEGAZIOA

2002ko abenduan, Administrazio Kontseiluak golf zelaietako irakaskuntza zerbitzuak emateko kontratuak aldatzea erabaki zuen. Sektore horretako profesionalentzako lehiaketa deitu zuen, zuzenean kanon bat ordainduta horiek kudea zezaten zerbitzua.

2004ko azaroan, Administrazio Kontseiluak irizpide hori zabaldu zuen: edozein profesionalak eman ditzake golf klaseak instalazioetan. Horrela zerbitzu publikoa sustatu zuen eta ez zuen kanonik ezarri.

2005eko azaroan, Administrazio Kontseiluak zabaltzeko politika eratu zuen, kanonik ezarri gabe.

2007. urtean lehiaketa publikoa deitu zen, kanon baten trukean zerbitzu bakarrari eusteko politikari heldu zion berriz. Lehiaketa azkenean adjudikatu egin zen, eta kanona hasieran ordaindu zen; alegazio hauek egin diren egunera arte horrela izan da.

II.D.3 BESTE OHAR BATZUK:

3.1 Arabarri, SA: Administrazio Kontseiluak 2002ko martxoaren 22an onartutako araudiko 16. artikuluan sozietateak toki erakundeei ematen dizkien dirulaguntzak ezarri dira; bertan, dena den, ez dira zehazten zein ekintza finantzatuko dira, ezta proiektu bakoitzari emango zaion dirulaguntzaren ehunekoa ere.

Dirulaguntzen gaineko arauetan zehaztu egin behar da zein ekintzek jaso dezaketen dirulaguntza eta zein izango den dirulaguntzaren ehunekoa.

ALEGAZIOA

Ez gatoz bat Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako ohar horrekin. Aipatutako laguntzetan zehaztu egiten dira onuradunak (ARABARRI, S.A.ren kapital soziala osatzen duten toki erakundeak) eta laguntzen xedea (Birgaitze Integratuko Aldeetan egin behar diren ekintzak eta BIAetan egin beharreko ekintzak zehatz-mehatz azaltzen dituzten



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Birgaitzeko Plan Berezietan sartzen diren ekintzak; gero onartu eta ALHAOn argitaratzen dira foru agindu moduan, lurraldeko hirigintza plangintzan sartuz).

Ekintza horietako asko, gainera, administrazio batek baino gehiagok finantzatzen ditu; horrenbestez, zaila da a priori zehaztea zein izango den ARABARRI, S.A.k proiektua bideragarria dela bermatze aldera finantzatuko duen ehunekoa.



ALEGACIONES AL INFORME DE FISCALIZACIÓN DE LA CUENTA GENERAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA 2006

**** Suprimidos nombres de personas físicas, jurídicas y datos que puedan identificarlas.

SECTOR PÚBLICO ADMINISTRATIVO

I. OPINIÓN

I.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD

A. DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA (DFA)

INGRESOS PRESUPUESTARIOS

1.- En dos expedientes de fraccionamiento concedidos en 2006, cuya deuda tributaria principal fraccionada asciende a 2.137 miles de euros, las garantías hipotecarias aportadas no son suficientes para garantizar la totalidad de las deudas fraccionadas (artículo 79 de la Norma Foral General Tributaria de Álava 6/2005).

ALEGACIÓN

En los expedientes aludidos por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas no existía la posibilidad por parte del contribuyente de aportar aval bancario, por lo que, ante la imposibilidad de que los mismos hicieran frente al pago de la deuda en su totalidad, dado su importe, y ponderando lo que supondría el impago de las cuotas, se consideró conveniente la tramitación de los correspondientes fraccionamientos, única opción para que los contribuyentes cancelen sus deudas, con el devengo de los intereses de demora señalados por la Norma Foral General Tributaria. Se admitió como garantía la hipoteca sobre los bienes “libres de cargas” imputables a los contribuyentes, situación más favorable a los intereses de la Hacienda Foral que tramitarlos con dispensa de las mismas. Los citados fraccionamientos de pago devengaron el interés de demora señalado en el artículo 26-6 primer párrafo de la Norma Foral General Tributaria de Álava, interés aplicable cuando las garantías no cubren la totalidad de la deuda.

PERSONAL

2.- La DFA no incluye en sus declaraciones fiscales del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas las cesantías pagadas a dos altos cargos por importe de 18 miles de euros, al no considerarlas como retribuciones sujetas al IRPF cuando la normativa tributaria no contempla exención para estas retribuciones.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGACIÓN

